

**ANTOLAKUNTZA**

**ETA**

**JARDUERA**



*Aniturri BHI*

**ARAUDIA**

# AURKIBIDEA

<b>I. IKASTETXEKO ORGANOAK .....</b>	<b>4</b>
<b>1. ZUZENDARITZA ORGANOAK.....</b>	<b>4</b>
1.1. IKASTETXEKO ESKOLA KONTSEILUA.....	4
1.2. IRAKASLE KLAUSTROAZ.....	8
1.3. ZUZENDARITZA TALDEAZ.....	9
1.4. ZUZENDARITZAZ.....	10
1.5. IKASKETABURUTZAZ, IDAZKARITZAZ, ADMINISTRAZIOAZ, ZIKLOETAKO KOORDINAZIOAZ ETA LAN SEGURTASUN ARDURADUNAZ.....	12
<b>2. PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA ORGANOAK .....</b>	<b>14</b>
2.1. GURASOEN BATZARRA.....	15
2.2. GURASOEN ELKARTEAZ.....	16
2.3. IKASLERIAREN PARTAIDETZAZ .....	16
2.4. IKASLEEN ELKARTEEZ .....	17
<b>3. PEDAGOGI KOORDINAZIORAKO ORGANOAK .....</b>	<b>18</b>
3.1. IRAKASLERIA.....	18
3.2. TUTORETZA FUNTZIOA .....	19
3.3. IRAKASLE TALDEAK.....	20
3.4. MINTEGI DIDAKTIKOAK.....	20
3.5. HEZKUNTZA ZERBITZUAK .....	22
3.6. ESKOLA ZERBITZUAK .....	23
<b>II. ANITURRI INSTITUTUKO KUDEAKETA TRESNAK.....</b>	<b>24</b>
<b>1. ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIO AKADEMIKORAKO TRESNAK .....</b>	<b>24</b>
1.1. EPE ERTAINERAKO PROIEKTUAK.....	24
1.2. URTEKO PLANA .....	25
1.3. URTEKO MEMORIA .....	27
<b>2. IRAKAS-JARDUNERAKO TRESNAK.....</b>	<b>28</b>
2.1. PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK.....	28
2.2. IRAKAS-JARDUNAREN JARRAITZEA ETA KOORDINAZIOA .....	28
<b>3. DOKUMENTAZIO AKADEMIKOA .....</b>	<b>29</b>
<b>4. EKONOMIA KUDEAKETARAKO TRESNAK.....</b>	<b>30</b>
<b>III. ESKOLA JARDUERAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK .....</b>	<b>31</b>
<b>1. IRAKASLERIARI DAGOZKION ARAUAK.....</b>	<b>31</b>
<b>2. IKASLERIARI BURUZKO ARAUAK.....</b>	<b>32</b>
<b>3. EGOITZA ETA EKIPAMENDUEN ERABILERARI BURUZKO ARAUAK.....</b>	<b>33</b>
<b>4. EBALUAZIO ETA PROMOZIOARI BURUZKO ARAUAK.....</b>	<b>34</b>
<b>5. IKASLEEN JARDUERA BEREZIEI BURUZKO ARAUAK.....</b>	<b>37</b>
<b>6. SEGURTASUN ETA HIGIENEARI BURUZKO ARAUAK .....</b>	<b>38</b>
<b>IV. KASTETXEKO BIZIKIDETZA ARAUDIA.....</b>	<b>39</b>
<b>1. IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHAR OROKORRAK.....</b>	<b>39</b>
1.1. I. KAPITULUA: IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHAR OROKORRAK .....	39
a) I. ATALA: IKASLEEN ESKUBIDE OROKORRAK.....	39

b)	II. ATALA: IKASLEEN BETEBEHAR OROKORRAK.....	44
c)	ESKOLATZE ESKUBIDEA BERMATZEKO NEURRIAK.....	46
1.2.	II. KAPITULUA: DIZIPLINA .....	46
a)	I. ATALA: XEDAPEN OROKORRA.....	46
b)	II. ATALA: JOKABIDE MOTA EZBERDINAK .....	46
(1)	JOKABIDE DESEGOKIAK (FALTA ARINAK) (A MOTAKOAK) .....	46
(2)	IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN AURKAKO JARRERAK. (FALTA LARRIAK) (B MOTAKOAK) .....	48
(3)	IKASTETXEKO BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK. (FALTA OSO LARRIAK) (C MOTAKOAK).....	49
(4)	IKASTETXETIK KANPO EGINDAKO EGINTZENGATIKO ERANTZUKIZUNA .....	51
c)	III. ATALA. DIZIPLINA ARAU HAUSTEEN ONDORIOAK.....	51
(1)	JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA. (A MOTAKOAK).....	51
(2)	IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ZUZENKETA (B MOTAKOAK) .....	52
(3)	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENKETA (C MOTAKOAK) ...	53
(4)	IKASTETXEZ ALDATZEKO PROPOSAMENA.....	54
(5)	IZAN DAITEZKEEN KALTEENGATIKO ERANTZUKIZUNA .....	54
(6)	NEURRI ZUZENTZAILEAK PROPORZIONALTASUNEZ APLIKATZEN DIRELA BERMATUKO DA...54	
1.3.	III KAPITULUA. JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK .....	55
1.4.	IV. KAPITULUA. NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK .....	55
a)	I. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK.....	55
b)	II. ATALA. JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA .....	56
c)	III. ATALA. GAINERAKOAK ZUZENTZEKO OHIKO PROZEDURA.....	57
d)	IV. ATALA. OHIZ KANPOKO PROZEDURA .....	57
1.5.	XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	58
1.6.	XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	58
<b>2.</b>	<b>IRAKASLERIAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.....</b>	<b>58</b>
<b>3.</b>	<b>GURASOEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK .....</b>	<b>59</b>
<b>4.</b>	<b>EZ IRAKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.....</b>	<b>59</b>
<b>V.</b>	<b>ARAU AKADEMIKOAK.....</b>	<b>60</b>
<b>VI.</b>	<b>AJA ALDATZEKO PROZEDURA.....</b>	<b>60</b>
<b>VII.</b>	<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>61</b>
<b>1.</b>	<b>201/2008 DEKRETUA .....</b>	<b>61</b>
<b>2.</b>	<b>201/2008 DEKREUAREN AURKAKO JOKABIDEAK ZUZENTZEKO PROZEDUREN EUSKARRI DOKUMENTALA.....</b>	<b>61</b>

# I. IKASTETXEKO ORGANOAK

## 1. ZUZENDARITZA ORGANOAK

ANITURRI Bigarren Hezkuntzako Institutuak ondoko zuzendaritza-organoak izango ditu:

a) Taldeko organoak:

- Ordezkaritza-organo gorena, Eskola Kontseilua izena izango duena.
- Eskola Kontseiluaren batzordeak:
  1. Batzorde Iraunkorra
  2. Elkarbizitza Batzordea.
- Klaustroa.
- Zuzendaritza-Taldea.

b) Lagun bakarreko organoak:

- Zuzendaria.
- Ikasketa-Burua.
- Idazkari/Administratzailea.

### 1.1. IKASTETXEKO ESKOLA KONTSEILUA

1. Ikastetxeko Eskola Kontseilua honako kide hauek osatuko dute:

- a) Zuzendariak.
- b) Ikasketa-Buruak.
- c) Irakasleen 10 ordezkariak.
- d) Gurasoen 7 ordezkariak.
- e) Ikasleen 8 ordezkariak.
- f) Administrazio eta zerbitzuetarako pertsonalaren ordezkari batek.
- g) Udalbatzaren ordezkari batek.
- h) Idazkariak, hizpidez eta botorik gabe.

2. Eskola Kontseiluaren funtzioak Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeko 31.2. atalean jasotakoak dira:

- a) Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua, Antolakuntza eta Jarduera-Araudia eta Kudeaketa-Proiektua onartzea, bete daitezen begiratzea eta 28.3 atalak agintzen duenaren arabera ebaluazioa egitea.
- b) Ikastetxearen Urteko Plana onartzea, 35.2.a) atalean erabakitakoaren kaltetan gabe.

- c) Prestakuntza-jardueren, Eskolaz Kanpokoan eta Osagarritzkoen Egitaraua eta Urteko Kudeaketa-Egitaraua onartzea, horien jarraipena eta aldizkako ebaluazioak bere gain hartuz.
  - d) Ikastetxearen Urteko Memoria onartzea.
  - e) Zuzendaria hautatzea eta, beronen proposamenez, ikastetxeko gainerako lagun bakarreko organoak izendatzea. Zuzendariaren izendapena ezeztatzea edo bera indargabetzeko proposatzea, bi herenek onartutako erabakiz.
  - f) Ikasleen onarpena erabakitzea, indarrean dagoen araudian agindutakoari bete-betean lotuz.
  - g) Ikastetxeetan bizikidetzaren arloko neurri zuzentzaileak ezagutzea eta berrikustea, ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituzten arauekin bat etorriz.
  - h) Beste ikastetxe batzuekin lankidetzaren harremanak ezartzea kultura eta hezkuntzako helburuez, zeregin hori Batzorde Iraunkorraren esku geratzen delarik.
  - i) Eskolako instalazio eta tresneriaren alda-berrikuntza sustatzea, bai eta haien iraupena zaintzea ere, zeregin hori Batzorde Iraunkorraren esku geratzen delarik.
  - j) Ikastetxearen jardura orokorra gainbegiratzea, administrazio eta irakaskuntza alderdietan.
  - k) Lege honek edo beste arau batzuek, edo ikastetxearen Antolakuntza eta Jardura-Araudiak ematen dioten beste edozein aginpide.
- 3.** Dituen funtzioak bete ahal izateko honako laguntza hauek eskatu eta eskuratu ditzake Eskola Kontseiluak:
- a) Bereziki interesgarriak diren gaietan, eskola-komunitateko talde desberdinen partaidetza-organoen iritzia eskatzea.
  - b) Egonkorak edo unean-unekoak diren batzordeak eratzea.
  - c) Laguntzako Zerbitzuei, Ikuskaritzari eta Administrazioari egoki iruditzen zaizkion datuak, txostenak eta aholkuak eskatzea.
  - d) Hezkuntzako teknikariei azterlanak egiteko eskatzea.
- 4.** Eskola Kontseilua gutxienez lau aldiz bilduko da ikasturtean zehar: ikasturte hasieran eta amaieran, eta 1. eta 2. ebaluazioen ostean. Ikasturtearen hasieran, saio horretan Urteko Plana eztabaidatu eta onartuko du, eta ikasturtearen bukaeran, saio horretan Urteko Memoria aztertu eta onartuko du. Horretaz gain, Batzorde Iraunkorrek erabakitzen duen guztietan edo Eskola Kontseiluko kideen heren batek eskatzen duenean ere bilduko da. Idazkariak hartutako akordioaren akta egingo du.
- 5.** Zuzendariak egingo du Eskola Kontseilua biltzeko deialdia eta data, ordua eta gai-zerrenda adieraziko ditu. Zuzendaritza Taldeari dagokio gai-zerrendako gaiak zehaztea, hala nahi duelako edo Batzorde Iraunkorreko kideek eskatu diotelako. Zuzendaritza-Taldeari dagokio klaustroak gaiak eztabaidatu eta erabaki ahal izateko beharrezkoa den informazioa ekartzea.

Gai-zerrendatik kanpo dauden gaiak ere eztabaidatzeko aukera izango da kideen gehiengo absolutuak horrela erabakitzen badu.

6. Eskola Kontseiluko kideek eta bertan osatzen diren batzordeetako kideek ez dute nahitaezko agindurik izango beren ordezkaritza-lanean. Alor bakoitzeko ordezkariak Eskola Kontseiluan burututako lanen berri eman behar diote dagokion taldeko organoari; halaber, egin nahi dituzten proposamenak jakinarazi behar dizkiote, baina ez dute organo horretako kideen gehiengoaren iritziekiko lotespenik izango. Pertsona jakinei edota euren irudiari kalteren bat sor diezaioketen arazoei buruzkoak isilpean gorde beharko dituzte.
7. Eskola Kontseiluak edo hori osatzen duen edozein batzordek aztertu beharreko dokumentuek Eskola Kontseiluko kide guztiek izan beharko dituzte eskuragarri garaiz eztabaidatuko diren saioa burutu aurretik aztertzeko nahikoa astiarekin. Urteko planaren eta urteko memoriaren proposamena, onartu baino gutxienez bost egun aurretik izan beharko dituzte eskura Eskola Kontseiluko kideek.
8. Eskola Kontseilua osatzen duten taldeetako ordezkariak Klaustroa, Gurasoen Batzarra, eta Delegatuen Batzordea informazio-bileretara deitu beharko dituzte gai garrantzitsuak eztabaidatzen direnetan.
9. Eskola Kontseiluak batzordeak sortzeko eskumena izango du zenbait funtzio edo eginkizun jakin burutzeko, beti ere Kontseiluak berak adierazitakoaren arabera. Bi batzorde egonkor eratuko dira:
  - a) Batzorde Iraunkorra.
  - b) Elkarbizitza Batzordea.
10. Batzorde Iraunkorra honako kide hauek osatuko dute eta Ikastetxeko Eskola Kontseiluaren eskumen guztiak izango ditu:
  - a) Zuzendariak, buru izango delarik.
  - b) Ikasketa-Buruak.
  - c) Bi irakaslek, Eskola Kontseiluan irakasleek dituzten ordezkarien artean aukeratutakoak.
  - d) Bi gurasok, Eskola Kontseiluan haiek dituzten ordezkarien artean aukeratutakoak..
  - e) Bi ikaslek, Eskola Kontseiluan haiek dituzten ordezkarien artean aukeratutakoak.
  - f) Udalbatzaren ordezkari batek edo administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari batek.
  - g) Idazkariak, hizpidez eta botorik gabe.

11. Eskola Kontseiluak zehaztuko du eratzten diren batzorde egonkor edo unean unekoen lanerako planak. Batzordeek burututako jardueren berri eman behar diote Eskola Kontseiluari horretarako egingo dituen bileretan.
12. Zuzendaria izango da Batzorde Iraunkorraren burua. Batzorde iraunkorrak honako funtzio hauek izango ditu eta oro har Eskola Kontseiluko funtzio guztiak beregain hartuko ditu:
  - a) Kudeaketa-proiektua, Prestakuntzarako Jardueren eta Jarduera Osagarri nahiz Eskolaz Kanpoko Jardueren Programa eta Urteko Kudeaketa-Programa lanketa bideratzea, Eskola Kontseiluak onar dezan.
  - b) Urteko Memoriaren zirriborroa bideratzea, Eskola Kontseiluak eztabaida dezan.
  - c) Eskola Kontseiluaren bilkuren gai-zerrenda prestatzea eta gaiak eztabaidatzeko dokumentazioa eskura izatea.
  - d) Eskola Kontseiluaren berezko funtzioak bere gain hartzea, hots, *"ikastetxearen jarduera orokorra gainbegiratzea, administrazio eta hezkuntza alorrari dagokienez"*, Urteko Planaren jarraipena burutzea, bereziki Prestakuntza-Jardueren, Eskolaz Kanpoko Jardueren eta Jarduera Osagarrien Programarena eta Eskola Kontseiluaren zereginetan zehaztutakoak.
  - e) Zuzendaritza Taldearen kontsulta-organo gisa aritzea bere eskumenekoa izan arren, gairen bat garrantzitsua iruditzen bazaio eta erabakia hartu aurretik eskola-komunitatearen iritzia berri jakin nahi badu.
  - f) Eskola Kontseiluak agindutako funtzioak eta eginkizunak betetzea.
13. Elkarbizitzarako Batzordea honako kide hauek osatuko dute:
  - a) Ikasketa-Buruak, buru izango da.
  - b) Orientatzaileak
  - c) Bi irakaslek.
  - d) Bi gurasok.
  - e) Bi ikaslek.
  - f) Idazkariak, hizpidez eta botorik gabe.
  - g) Dagokion taldeko tutoreak eta delegatuak, hizpidez eta botorik gabe.
  - h) Ikasleen Elkarrekin taldeko kide batek, hizpidez eta botorik gabe.

Bere zereginak izango dira:

- a) Elkarbizitza ikastetxean bide egokitik zuzentzen dela zaintzea.
- b) Elkarbizitza hobetzeko eta sor daitezkeen arazoei aurre hartzeko proposamenak egitea.
- c) Hutsegite larriak eta oso larriak aztertuko ditu Eskola Kontseiluaren izenean, araudi honetan jasotakoaren arabera neurri zuzentzaileak jartzeko eskumena izango du.

## 1.2. IRAKASLE KLAUSTROAZ

1. Irakasle-klaustroa irakasleek ikastetxean duten berezko partaidetza-organoa da. Bertan lan egiten duten irakasle guztiek osatuko dute eta Ikastetxeko Zuzendaria izango da burua.
2. Klaustroak, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak bere 35.2 eta 35.3 ataletan esleitzen dizkion funtzioak izango ditu.
  - a) Ikastetxearen Curriculum-Proiektua eta Irakaskuntza-Jardunen Egitaraua egin eta onartzea, Eskola Kontseiluak irizpena eman ondoren; organo horrek erabakiko du Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuan jasotako ardetarauekiko egokitasunaz.
  - b) Irakaskuntza-jardueren Egitarauaren betetze-mailaren berri ematea Eskola Kontseiluari, urteko txostena egin dezan.
  - c) Irakasleak ebaluatu eta berreskuratzeko lanari buruzko irizpideak ezarri eta koordinatzea
  - d) Irakasleriaren orientazio-eginkizunak eta tutoretza planifikatzea eta zuzentzea.
  - e) Ikastetxean garatu behar diren pedagogiako saioetarako edo ikerketarako ekinbideak sustatzea.
  - f) Ikastetxearen jarduera-arauak onartzea.
  - g) Irakasleen prestakuntzari dagozkionetan Prestakuntza-Jardueren, Eskolaz Kanpokoen eta Osagarrizkoen Egitarauari buruzko txostena egitea 36.3 atalak erabaki bezala eta Eskola Kontseiluak onartu baino lehen.
  - h) Irakasle-klaustroak hautatuko ditu ikastetxeko Eskola Kontseiluko bere ordezkariak.
3. Zuzendariak Klaustrorako deialdia egingo du, gai-zerrenda adieraziz. Zuzendaritza-Taldeari dagokio gai-zerrenda zehaztea, bere ekimenez nahiz irakas-taldeek edo irakasleek eskatuta, eta Klaustroko eztabaidarako eta erabakiak hartzeko beharrezko informazioak eskaini beharko ditu. Gai-zerrendatik kanpo dauden gaiak tratatu ahal izango dira, beti ere, kideen gehiengoak onartzen badu.
4. Klaustroak, bere eskumen-esparruan, Zuzendaritza-Taldearen edo beste irakas-talde batzuen proposamenak aztertzeko zeregina izango du eta, hala badagokio, proposamen hauek onartzekoa.
5. Ikasturtearen hasieran, ikastetxeak ikasturtean zehar izango duen antolaketa onesteko eta irakas-jardueren programa ontzat emateko bilduko da; ikasturtearen amaieran, ikasturtearen garapenez Urteko Memoriarako ekarpen gisa egin behar duen txostena burutzeko eta hurrengo ikasturteko irakas-jardueren programan sartuko diren proiektu didaktikoak definitzeko bilduko da.



6. Irakasle-klaustroa Eskola Kontseilua edo bere Iraunkorra batzartu aurretik bilduko da gai zerrendan institutuaren funtzionamendurako edota etorkizunerako garrantzitsuak edo erabakigarriak diren gaiak dituenean. Era berean, Zuzendariak edo Zuzendaritza-Taldeak erabaki edo irakasleriaren herenak eskatzen duen guztietan bilduko da eta bertan parte hartzea derrigorrezkoa da. Idazkariak hartutako akordioen akta egingo du.

### 1.3. ZUZENDARITZA TALDEAZ

1. Zuzendaritza Taldea Zuzendariak, Ikasketa-Buruak, Idazkari/Administratzaileak, DBH-ko eta Batxilergoko koordinatzaileak, Orientatzaileak eta Kalitate arduradunak osatuko dute.
2. Zuzendaritza Taldeari dagozkio Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36.2 atalean esleitutako funtzioak:
  - a) Ikastetxearen zuzendaritza eta koordinaziorako irizpideak erabakitzeko eta jarduerari begira garrantzi handiagoko erabakiak hartzeko orduan Zuzendariari laguntzea.
  - b) Kudeaketa Proiektua, Prestakuntza-Jardueren, Eskolaz Kanpokoen eta Osagarritzkoen Egitaraua eta Urteko Kudeaketa Egitaraua lantzea, Eskola Kontseiluak onar ditzan.
  - c) Aurreko puntuan adierazitako programen burutzapena zaintzea eta koordinatzea, eta horien betetze mailaren berri ematea Eskola Kontseiluari Urteko Txostena onar dezan.
  - d) Urteko Txostenaren zirriborroa egitea, Eskola Kontseiluak eztabaida dezan.
  - e) Eskola Kontseiluari euskal eskola publikoko beste zenbait ikastetxerekin lankidetzaharremanak izateko proposamena egitea eta, halaber, kultura eta hezkuntza xedez, erakundeekin itunak izenpetzeko proposamenak egitea, organo horrek, egoki baderitzo, hezkuntza-administrazioari aurkez diezazkion.
  - f) Irakasle taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara atxikitzeko irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran arloa bideratzen duten arauen arabera.
  - g) Ikastetxeko irakaskuntzan Curriculum Diseinua betetzen dela zaintzea.
3. Eskola-jarduna hiru esparrutan banatuko da, horietako bakoitza taldeko kide baten ardurapean:
  - a) Langileei eta kanpoko harremanei dagokien esparrua Zuzendariaren eskumena izango da.
  - b) Pedagogiari eta hezkuntza-zerbitzuei dagokien esparrua, Ikasketa-Buruarena.
  - c) Administrazio, ekonomia eta eskola-zerbitzuei dagokien esparrua, Idazkariarena eta Administratzailearena.

4. Zuzendaritza Taldea kudeaketa-esparru desberdinen koordinazio-organoa izango da. Horretarako, kide bakoitzak bere eskumeneko esparruko jardunen berri emango du, eta irizpide komunak eta jardun guztiei koherentzia emateko moduak bilatuko ditu.
5. Ohiko izaeraz, astean behin bilduko da, ordutegi orokorrean horretarako jarritako orduan. Ezohiko izaeraz bilduko da, Zuzendariak erabaki edo taldeko beste lau kideek eskatzen duten guztietan.
6. Zuzendaritza taldea bere zereginak hobeto betetzearren Mintegi Buruekin bilduko da, Batzorde Pedagogikoa osatuz. Batzorde Pedagogikoa astean behin bilduko da, ordutegi orokorrean horretarako jarritako orduan
7. Zuzendaritza Taldeari dagozkio ondoko zeregin hauek:
  - a) Urteko Planaren eta Azken Memoriaren programen lanketa koordinatzea.
  - b) Urteko Planaren martxaren jarraipena egitea, irakaskuntza-jardueren eta kudeaketaren programena batez ere.
  - c) Klaustroaren eta Eskola Kontseiluaren eta Iraunkorraren bilkuretako gaitzerrenda prestatzea.
  - d) Informazio-bide egokiak finkatzea eta zuzendaritza eta koordinazio-organo desberdinetarako beharrezko informazioa izatea.
  - e) Aldizka Eskola Kontseiluari eta Klaustroari Urteko Planaren programak bete diren adieraztea eta bere burutzapenean egin ahal izan diren aldakuntzen berri ematea.
  - f) Eskola Kontseiluari proposamenak egitea beste ikastetxe publikoekin konbenioak ezartzeko, eskolatzea hobetzeko, esperientzia eta baliabideak trukatzeko, eta baita ere ikastetxeak harreman sistematikoak izango dituen erakunde eta organismoekiko koordinazio moduak finkatzea.

#### **1.4. ZUZENDARITZAZ**

1. Zuzendariari dagozkio Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak bere 34. atalean egozten dizkion funtzioak.
  - a) Ikastetxearen ordezkaritza izatea, ikastetxean hezkuntza Administrazioa ordezkatzeko, eta Administrazio horri hezkuntza-komunitatearen planteamenduak, asmoak eta premiak helaraztea.
  - b) Ikastetxearen jarduera guztiak zuzentzea eta koordinatzea, irakasleen klaustroari eta ordezkaritza-organo gorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe.
  - c) Zuzendaritza pedagogikoa gauzatzea, hezkuntza berrikuntza sustatzea eta ikastetxearen heziketa-proiektuaren helburuak lortzeko planak bultzatzea.
  - d) Legeen eta indarrean dauden gainerako xedapenen betetzea bermatzea.

- e) Ikastetxeari atxikitako langile guztien buru izatea.
  - f) Ikastetxeko elkarbizitza hobetzea, gatazkak konpontzeko bitartekotza bermatzea eta ikasleei dagozkien neurri zuzentzaileak ezartzea indarrean dagoen araudia beteta, gai honetan ordezkaritza-organo gorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe. Horretarako, ikastetxeetan gatazkak konpontzeko prozedurak bizkortzea sustatuko da.
  - g) Ikastetxearen eta ingurunearen arteko harremana sendotzeko, familiekin, erakundeekin eta organismoekin lankidetzat bultzatzea, eta eskola-giroa sustatzea, ikasleek jakintzetan eta balioetan prestakuntza integrala jasotzeko eta ikasketa-ohiturak sustatzeko lagungarri izan daitezkeen jardun guztiak garatze aldera.
  - h) Ikastetxearen barneko ebaluazioak bultzatzea eta kanpoko ebaluazioetan eta irakasleen ebaluazioan laguntzea.
  - i) Ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenaren eta irakasleen klaustroaren egintza akademikoetarako eta bilkuretarako deialdia egitea, egintza-bilkura horiek zuzentzea eta aipatutako erakundeek beren eskumenen eremuan hartutako erabakiak betearaztea eta betetzen diren zaintzea.
  - j) Lege honen 63. atalak aipatzen dituen obren, zerbitzuen eta horniduren kontratazioak egitea, gastuak baimentzea ikastetxearen urteko kudeaketa-programarekin bat etorriz, ordainketak agintzea eta ikastetxearen ziurtagiriei eta dokumentuei oniritzia ematea, hori guztia araudi bidez ezarritakoari jarraiki.
  - k) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailari ikastetxeko zuzendaritza-taldeko beste kideen izendapena eta kargu-uztea proposatzea, irakasleen klaustroari eta ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenari jakinarazi ondoren.
  - l) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak esleitzen dizkion guztiak, beste arau batzuk esleitzen dizkionak eta ikastetxearen antolaketa eta jardunbiderako erregelamenduak ezartzen dizkionak.
- 2.** Zuzendariak, bere funtzioak betetz, Eskola Kontseiluak eta Irakasle-Klaustroak beren eskumeneko gaietan hartutako erabakien eta planen arabera jokatu beharko du. Era berean, hezkuntza-komunitatea dinamizatzea dagokio, irakasleak batez ere, eta beren ekarpen eta interesak jasotzea eta bideratzea, komunikaziorako eta lankidetzarako bideak bilatuz.
- 3.** Zuzendariari dagozkio ondoko zeregin hauek:
- a) Zuzendaritza Taldearekin batera, ikastetxearen funtzionamendu orokorra eta azaltzen diren arazoak ezagutu eta jarraitzea, bertan gertatzen denaren azken erantzule gisa.
  - b) Zuzendaritza-Talderako, Klaustroarako, Eskola Kontseilurako eta Batzorde Iraunkorrerako deialdia egitea, gai-zerrenda moldatzea eta bilkura horietan buru izatea.
  - c) Zuzendaritza-Taldeak Urteko Plana betetzeari buruz lantzen duen txostena helaraztea.

- d) Bere lehendakaritzapeko organoen erabakiak burutzea edo buruaraztea.
  - e) Ikastetxearen izenean administrazioarekin, Ikasleen Gurasoen Elkartearekin eta gizarte-ongizate, kultura... erakundeekin eta gizarte taldeekin harremanak edukitzea.
  - f) Administrazioari, ikastetxea ongi antolatzeko, langileriarri dagokionez dituen beharrak aurkeztea.
  - g) Gastuak eta ordainketak egiaztatu eta ikusi-onestea.
  - h) Arauak, erabakiak, proiektuak eta jarduera-egitarauak eta ikastetxearen jarduerari eragiten dioten erabakiak betearaztea.
4. Bere funtzioak betetzeko, Zuzendariak araudiak une bakoitzean zehaztutako eskola- ordu libre kopurua izango du.

### 1.5. IKASKETABURUTZAZ, IDAZKARITZAZ, ADMINISTRAZIOAZ, ZIKLOETAKO KOORDINAZIOAZ ETA LAN SEGURTASUN ARDURADUNAZ

1. **Ikasketa-Burutza** da Curriculum-Proiektua eta Irakas–Jardueren Programa koordinatu eta gauzaten direla zaintzeko ardura duen organoa.
2. Ikasketa Buruari ondoko funtzio hauek dagozkio, ikastetxearen Zuzendaritza-Taldeak onartutako irizpideen arabera:
  - a) Irakas-jarduerak koordinatzea.
  - b) Eskolako ordutegiak egitea eta betetzen direla zaintzea.
  - c) Irakasle bakoitzari ikastetxeko gela bat edo gehiago izendatzea, Zuzendaritza-Taldeak ezarritako atxikipen irizpideak jarraituz.
3. Ikasketa Buruak ondoko zereginak burutuko ditu:
  - a) Irakasleriaren hutsegite eta bajak direla eta gertatzen diren bete gabeko lanpostuak betetzeko ezarri diren mekanismoak abiaraztea eta Ordezkaritzari beharrezko ordezkapenak eskatzea.
  - b) Diziplina eta elkarbizitza-arazoetan esku hartzea, araudi honetan ezarritakoaren arabera.
  - c) Ebaluazio eta orientabide-prozesuak koordinatzea.
  - d) Ikuskaritzara irakasleriaren hutsegiteen hileroko parte igortzea, ezarritako epeen barruan.
4. Pedagogi esparruaz arduratzen den Zuzendaritza-Taldeko kide gisa, Ikasketa-Buruaren menpe egongo dira Pedagogi Koordinaziorako Batzordea, Elkarbizitzarako Batzordea, irakas-taldeak eta hezkuntza-zerbitzuak. Aldizka, eta eskatzen dioten guztietan, organo hauen jardunen berri emango dio Zuzendaritza-Taldeari. Irakas-taldeen arduradunengandik eta koordinatzaileengandik informazioa jasoko du lan-planei, beren burutzapenari eta erabakiei, eta talde desberdinek igiten duten lanari buruz.

5. Ikastetxearen egoeraren eta talde desberdinek egiten dituzten ziklo desberdinen analisisian oinarrituta, Ikasketa-Buruak, Zuzendaritza-Taldearen lankidetzaz, Urteko Planean sartu beharreko berriazko berrikuntza edo prestakuntza-proiektuak izango dituzten gaiak proposatuko ditu.
6. Bere funtzioak betetzeko, Ikasketa Buruak araudiak une bakoitzean zehaztutako eskola-ordu libre kopurua izango du.
7. **Idazkaritza** ikastetxeko administrazio-kudeaketaren ardura izango duen organoa da.
8. Idazkariak ondoko funtzioak izango ditu:
  - a) Ikastetxeko organo kolegiatuen bilkuretako gai-zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, organo horietako buruak ezarritakoaren arabera, eta organo horien bilkuretako akta egitea.
  - b) Aktak, espedienteak eta ikastetxearen beraren agiriak zaintzea, eta bertako organoen eskueran izatea.
  - c) Zuzendariaren oniritziaz, ikastetxearen ekintzak, erabakiak, hitzarmenak, edo euren aurrekinak, liburuak eta ikastetxeko agiri guztiak egiaztatzea.
9. Administrazio-esparruaren arduradun gisa, idazkariaren menpe egongo dira administrazio eta zerbitzuetako langileak.
10. Bere funtzioak betetzeko, Idazkariak araudiak une bakoitzean zehaztutako eskola-ordu libre kopurua izango du.
11. **DBH Koordinatzaileak** honako eginkizun eta ardura hauek izango ditu, ikasketaburutzak zuzenduta eta gainbegiratuta:
  - DBHko 1,2 eta 3. kurtsoen eta irakasleen koordinazio pedagogikoa.
  - Ikastetxearen eta honi atxikitako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen arteko komunikazioa eta lankidetzak, bi hezkuntza-mailetako curriculum-proiektuen arteko koordinazioa bermatzeko.
12. **Batzilergoko eta OLH Koordinatzaileak** honako eginkizun eta ardura hauek izango ditu, ikasketaburutzak zuzenduta eta gainbegiratuta:
  - DBHko 4 kurtsoa, Batxilergoko eta OLHko irakasleen koordinazio pedagogikoa.
  - Ikastetxearen eta ikastetxera batxilergoa egitera datozen ikasleen DBHko ikastetxeen arteko komunikazioa eta lankidetzak, bi hezkuntza-mailetako curriculum-proiektuen arteko koordinazioa bermatzeko.
13. **Administratzaileak**, organo eskudunen orientabideen eta Zuzendaritza Taldearen edo, hala badagokio, Batzorde Iraunkorraren jarraibideen arabera, eta Zuzendariak gainbegiratuta, ondoko funtzioak beteko ditu:

- a) Ikastetxeko kontabilitatea eramatea.
- b) Ikastetxearen behar ekonomikoen zerrenda egitea, bere aurrekontu berezkoan sartu beharreko gastuei dagokienez.
- c) Aurrekontua eta beronen kitapenari dagokion agiria prestatzea, Zuzendaritza Taldeak edo, hala badagokio, Batzorde Iraunkorrek, Eskola Kontseiluak onetsi dezan aurkezteko.
- d) Kontratazioak, materiala eskuratzeko proposamenak eta inbertsioak prestatzeko aurre-izapideak burutzea.
- e) Ikastetxeko baliabideen inbentarioa egitea (informatikako baliabideak IKT arduradunak egingo ditu).
- f) Instalazioen mantenua ikuskatzea (informatikako baliabideen mantenua IKT arduradunak egingo ditu).

**14.** Bere funtzioak betetzeko Administrazioaileak zehaztuko den eskola ordu libre kopurua izango du.

**15. Lan-segurtasun arduradunak**, organo eskudunen orientabideen eta Zuzendaritza-Taldearen edo, hala badagokio, Batzorde Iraunkorren jarraibideen arabera, eta Zuzendariak gainbegiratuta, ondoko funtzioak beteko ditu:

- a) Portaera seguruak, lan eta babes ekipoen erabilera egokia eta langileek jarduera prebentzioaz duten interesa sustatu.
- b) Oinarrizko ekintza prebentiboak sustatu: ordena, garbitasuna, seinalizazioa eta mantenimendua eta horren jarraipenaz arduratu.
- c) Bere formazioa mailaren arabera, ebaluazio sinpleak egin eta dagozkien prebentzio neurriak ezarri.
- d) Ikastetxeko arriskuen ebaluazio eta kontrolean lagundu oinarrizko funtzioak betetzen: behaketak, iradokizun eta kexen bideraketa, datuen erregistroa eta, orokorrean, beharrezkoak diren zeregin guztiak.
- e) Larrialdia eta lehen laguntzak gertatuz gero, lehen eskuhartzea kudeatzea.
- f) Prebentzio zerbitzuekin lan egin

## 2. PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA ORGANOAK

- A) Aniturri Institutuak ondoko partaidetza-organoak izango ditu:
- a) Gurasoenak:  
Gurasoen Batzarra
  - b) Ikasleriarenak:  
Kurtsoko Ordezkarien Batzarra

B) Lankidetzaren organoak ondokoak dira:

- a) Ikasleen gurasoen elkarteak(k)
- b) Ikasleen elkarteak
- c) Erakundeak eta ikastetxearen laguntzaile gisa diharduten elkarteak.

## 2.1. GURASOEN BATZARRA

1. Batzarkideak dira ikastetxeko ikasle guztien gurasoak.
2. Gurasoen Batzarrak Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak bere 38.2 atalean esleitzen dizkion funtzioak dauzka.
  - a) Ikastetxeko gainerako organoei beren ardurapeko diren gaiei buruz egoki jo ditzan proposamenak egitea, eta Irakaskuntza-Jardueren, Eskolaz Kanpokoen eta Osagarritzkoen Egitaraua eta Urteko Kudeaketa-Egitaraua gauzatzeari buruzko balorazioa ematea.
  - b) Zuzendaritza-Taldearekin eta Irakasle-Klaustroarekin harremanak izatea, ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuaren garapenean lankidetzarik handiena lortzeari begira.
  - c) Ikastetxeko bizitzan parte hartzeko gurasoen ekimena suspertzea.
  - d) Batzar-organoetan gurasoen ordezkari direnak bileretara deitzea, egindako kudeaketaren berri emateko.
  - e) Bere jarduera-arauak onartzea.
3. Batzarra urtean bi aldiz bilduko da derrigorrez, behin ikasturtearen lehen hiruhilekoan, Eskola Kontseiluan gurasoen ordezkariak Ikastetxearen Urteko Planaren berri eman dezaten, eta berriro kurtso bukaeran. Halaber, Eskola Kontseiluak zerbait planteatzen dion guztietan bilduko da, bai bere iritzia jakiteko, bai informazioa edo proposamenen baten berri emateko edo bai bere kideen % 15ek hala eskatzen duenean. Batzarra talde honek Eskola Kontseiluan duen ordezkari zaharrenak deituko du.
4. Batzarrari, derrigorrez, ondoko hauei buruzko informazioa eman eta kontsultatu beharko zaio:
  - a) Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuaren lanketa eta bere aldaketa.
  - b) Ikastetxearen Urteko Plana.
  - c) Antolakuntza eta Jarduera-Araudian betebeharrak eta eskubideak eta elkarbizitzarako eta diziplinarako arauen definizioa.
  - d) Hizkuntz eredu aldaketetarako eskaera.
  - e) Ikastetxea eraberritzeko obra garrantzitsuen eskaera.
  - f) Jarduera Osagarriak eta Eskolaz Kanpokoak egiteko ikasleei eska dakizkiekeen gehieneko zenbatekoen zehaztapena.
5. Batzarrak aktiboki parte hartuko du Ikastetxeko Eskola Kontseiluko, Barrutiko Lurralde-Kontseiluko eta Udal Kontseiluko gurasoen ordezkarien hautaketan, ondoko funtzioak bere gain hartuz:



- a) Ordezkarri zaharrenak hautagaien aurkezpenerako saio informatiboetarako deialdia egingo du
- b) Sektoreko ordezkarien hautaketa Batzarraren bilkura irekian egingo da Eskola Kontseiluko bi kide gutxienez buru izanik.
- c) Batzarraren lehendakariak hauteskunderen emaitzak eta aukeratutako ordezkariak egiaztatuko ditu.

## **2.2. GURASOEN ELKARTEAZ**

1. Gurasoen Elkarteak gurasoen borondatezko partaidetza eta lankidetzako organoak dira.
2. Gurasoen Elkarteak soilik onartuko dira indarrean dauden arauen arabera eratzten badira eta badirela Eskola Kontseiluari ofizialki adierazten bazaio.
3. Elkarteek ondoko esparruetan jardun dezakete:
  - a) Gurasoen Batzarreko organo exekutiboetan.
  - b) Eskola Kontseiluak bultzatutako lan batzordeetan.
  - c) Bere sektoreko kideen eta beren seme-alaben defentsan, baldin eta eskubideak zapaldu edo betebeharrak bertan behera utzi direla ulertzen bada.
  - d) Urteko Planaren Programetarako proposamenak aurkeztuz, batez ere Jarduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpoko Programarako.
  - e) Jarduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpoko Programaren burutzapenean, eta eskola-jardueretan, gurasoen eta irakasleen arteko lankidetzan.
  - f) Gurasoen informazioan eta prestakuntzan.
  - g) Eskola-garraioaren kudeaketa, ikastetxearen esku dagoenean.
4. Ikasleen Guraso Elkarteak Eskola Kontseiluari burutzen dituen jardueren berri emango dio aldizka.
5. Guraso elkarteek ikastetxeko gela eta gune ezberdinak erabiltzeko eskubidea daukate bere jarduerak burutzeko, baldin eta ez badu eskolako jardun normalean eragozpenik sortzen. Zuzendaritzak beharrezko lokalak eskainiko ditu ikastetxeak dituen aukeren baitan, Elkarteak bere beharren berri eman ondoren.

## **2.3. IKASLERIAREN PARTAIDETZAZ**

1. Ikasleriaren partaidetza-organoa Kurtsoko Ordezkarien Batzordea izango da. Honen kide izango dira kargu honetarako hautatutako kurtsoko ordezkari guztiak, eta ikastetxeko ikasleen elkarte bakoitzeko ordezkari bat. Ordezkarien Batzordearen burua beraien artean eta beraiek hautatutako ordezkari bat izango da, bozeramaile gisa jardungo duena.



2. Ordezkarien Batzordeak taldeko elkarbizitza, eskola-jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan antolaketari eta ikastaldearen martxa orokorrari dagozkien gaiak eztabaidatu eta proposamenak egingo ditu, eta Ikasketa-Buruaren bitartez dagokion organora helaraziko ditu.
3. Ordezkarien Batzordea hilean behin bilduko da; halaber, Ikasketa-Buruak deialdia egiten duenean edo Eskola Kontseiluko ikasleen ordezkariak edo kurtsoko ordezkariak herenak eskatzen dutenean.
4. Ordezkariek talde bakoitzeko ikasleek ikasturteko lehen hilabetean hautatuko dituzte. Hautaketa-ekitaldirako deialdia Ikasketa-Buruak egingo du eta dagokion tutorea izango da burua.
5. Elkarbizitzari edo taldearen eskola-jardunari buruzko gaiei dagokienez, kurtsoko ordezkariak solaskide funtzioak beteko dituzte tutorearen edo edozein irakasleren aurrean, taldearen izenean.
6. Kurtsoko ordezkariak batzarrerako deialdia egin ahal izango dute klasean informazioa bildu, iritziak eskatu edo proposamenak jasotzeko, elkarbizitza-arauetan ezarritako baldintzetan eta irakastordu batzuk erabili ahal izango dituzte horretarako.
7. Ordezkarien batzordeak, dagokion taldeari kontsulta egin ondoren, eta gehiengo absolutua bere alde eduki ondoren, hamabostaldi baten barruan, eska diezaioke Ikasketa-Buruari ordezkariaren baten ordezkari berta behera uztea eta berri baten hautaketaren prozedura martxan jartzeko baimena.

#### **2.4. IKASLEEN ELKARTEEZ**

1. Ikastetxe bateko ikasleen elkarteak ikasleen borondatezko partaidetza eta lankidetzako organoak dira.
2. Ikasleen elkarteak soilik onartuko dira indarrean dauden arauen arabera eratzten badira eta badirela Eskola Kontseiluari ofizialki adierazten bazaio
3. Elkarteek ondoko esparruetan jardun dezakete:
  - a) Ikasleriaren partaidetza-organon;
  - b) Eskola Kontseiluak sustatutako lan taldeetan;
  - c) Bere sektoreko kideen defentsan, baldin eta eskubideak zapaldu edo betebeharrak bertan behera utzi direla ulertzen bada;
  - d) Urteko Planaren programetarako proposamenak aurkeztuz, batez ere Jarduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpokoan Programetarako; eta beronen burutzapenean, arduradun gisa nahiz laguntzaile gisa;
  - e) Ikasleriaren informazioan.
  - f) Proposa ditzakete ordezkari izateko hautagaiak.

4. Ikasleen elkarteek ikastetxeko lokalak erabiltzeko eskubidea daukate beren jarduerak burutzeko, baldin eta ez badute irakas-jardueretan eragozpenik sortzen, eta Zuzendariaren oniritzia badute.

### **3. PEDAGOGI KOORDINAZIORAKO ORGANOAK**

ANITURRI ISTITUTUAN pedagogia koordinaziorako organo gisa funtzionatuko dute ondoko hauek:

- a) Irakasle-klaustroa
- b) Irakas-taldeak, ziklokoak eta mintegiak
- c) Batzorde Pedagogikoa

Era berean, hezkuntza-jarduera ahalik eta onena izan dadin, ondokoak egongo dira:

- a) Hezkuntza-zerbitzuak (orientazioa)
- b) Eskola-zerbitzuak (garraioa, jantokia)

#### **3.1. IRAKASLERIA**

1. Irakasleriari dagokio:

- a) Irakas-jardueren programazioa landu, garatu eta ebaluatzea, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren arabera.
- b) Ikasleen tutoretza bere gain hartzea, ikasleen ikaskuntza eta aukera akademiko eta profesionaleri orientabidea emateko.
- c) Esleituta dauzkan irakas-taldeetan parte hartzea, ekintza koordinatua eta eskola-ingurura egokitutakoa definitu eta lortzeko.
- d) Ikastetxearen Urteko Planean parte hartzea eta bertan sartzen diren berriarazo proiektuetan laguntzea dagokion neurrian, eta baita ikastetxearen eta irakasleriaren irakas-jardunaren ebaluazioan laguntzea ere.
- e) Prestakuntza-jardueretan aktiboki parte hartzea, Hezkuntza Sailak eta ikastetxeko aginte-organismoek ezartzen dituzten baldintzetan.
- f) Zuzendaritza-Taldeak bere esku uzten dituen kargu eta funtzioak betetzea.
- g) Ikastetxearen antolaketarako eta funtzionamendu egokirako laguntza ematea, Ikasketa-Buruaren eta Antolakuntza eta Jarduera-Araudian zehazten diren beste arduradunen koordinaziopean.
- h) Izaera orokorraz, Hezkuntza Sailak ezartzen dituen arauak edo, ikastetxe bakoitzean, aginte-organismoek ezartzen dituztenak betetzea.
- i) Ikasleek bere klase-emankizunetan egiten dituzten hutsegiteak kontrolatu eta tutoreari jakinarazi.

2. Irakasleek, berez irakaskuntzari dagozkion zereginenez gain, araudi honek xedatutakoari eta Urteko Planean onartutako urteroko antolaketari jarraiki, ondoko berariazko funtzioen bat bete ahal izango dute:
  - a) Zuzendaritza-funtzioa.
  - b) Tutoretza-funtzioa.
  - c) Irakas-taldearen ardura.
  - d) Hezkuntza eta eskola-zerbitzuen ardura.

### 3.2. TUTORETZA FUNTZIOA

1. Ikasleek erreferentzia-talde bat osatuko dute, eta honi tutore bat esleituko zaio. Zuzendaritza-Taldeak, Irakasle-Klaustroari entzun ondoren, talde bakoitzaren tutorea izendatuko du. Tutorea berbera izango da zikloan zehar, legeak aurreikusitako kasuetan eta Zuzendaritza-Taldeak hala erabakitzen duenean izan ezik.
2. Tutoreari dagozkio ondoko zereginak:
  - a) Bere ikasle-taldearen irakasleen hezkuntza lana koordinatzea:
    - Hiruhilabetearen amaieran bere talde/gelan esku hartzen duten irakasleak deitzea, ohiko eran edo ezohikoan beharrezkoa denean ikasleak ebaluatzeko eta taldean ematen diren egoerak aztertzeko.
    - Ebaluaketa jardueretatik kanpo irakasle-taldearekin aldizkako harremanak izan eta bilera egitea. Ikasturtean zehar gutxienez hiru bilera egingo dituzte.
    - Ikasturte hasieran bilera horien egutegia finkatzea DBHko koordinatzailearekin eta Ikasketa Buruarekin batera.
  - b) Ezagutu eta finkatzea ikasleak ikastetxean dauzkan interesak, arazoak eta integrazio maila.
    - Irakasleekin aldiro bilerak egitea (banakakoak edo taldekoak eta burutzeko ikasleen klaseko orduak erabili ahal izango dira).
  - c) Irakasleek bai hezkuntzan eta bai lanbide munduan dauzkaten irtenbideei buruz orientazio eta aholkua ematea, irakasle-taldearekin hitz egin ondoren orientatzailearekin batera.
  - d) Ebaluaketa saioak koordinatzea eta Ikasketa-Buruak eskatzen duen informazio guztia eta estatistika datuak bildu.
  - e) Irakasleen dokumentu akademikoak betetzea.
  - f) Irakasleen familiei irakasleen martxaren berri ematea.
    - Ikasturte hasieran talde guztiek izango duten ohiko bileraren bidez.
    - Beharrezkoa ikusten denean, ezohiko bileren bidez. Bilera horietarako gainerako irakasleak ikastetxean egongo lirateke, haien partaidetza beharrezkoa ikusiko balitz.
    - DBHko bigarren zikloan eta Batxilergoan informazio bilerak egingo dira hautazkoen, aukeraketaren eta ikasketen aterabideen inguruan. Bertan Orientatzaileak, Ikasketa Buruak eta dagokien tutoreek hartuko dute parte.

- g) Bere taldeko irakasleei euren klase-emanaldietan ikasleen hutsegiteen kontrola eskatzea. Gainera, hala dagokionean, “Eskolatze eskubidea bermatzeko neurriak” atalean ezartzen den prozedura burutuko du.
  - h) Ikasleen jarrera hutsegite parte jarraipena egingo du, eta Ikasketa-Buruari jakinaraziko dio parte metaketa gertatzen denean.
  - i) Ikastetxeko Orientazio Zerbitzuak zehazten dituen erabakiak burutu beharko ditu.
3. Zuzendaritza Taldeak Orientazio Zerbitzua entzunda erabakitzen duen taldeetan Tutoreak astean ordubete izango du taldearekin tutoretza-plana burutzeko DBH eta OLHn.

### **3.3. IRAKASLE TALDEAK**

1. Irakasleriak lan koordinatua egingo du, eta horretarako irakas-taldeetan parte hartuko du. Ikastetxeko irakasle guztiek gutxienez irakas-talde bateko kide izan beharko dute.
2. Urtero, Irakas-Jardueren Programa lantzerakoan eta onartzerakoan, ikastetxean funtzionatuko duten irakas-taldeak, hauen kideak eta funtzionamendu-erregimena (zer maiztasunarekin egingo diren bilerak, lanerako plana, informazioa eta beste taldeekiko harremanak...) finkatuko dira.

### **3.4. MINTEGI DIDAKTIKOAK**

1. Arlo/irakasgaiari dagozkion lan-taldeak dira, irakasgai bateko edo batzuetako irakasleek osatzen dituztenak. Irakasleriaren oinarrizko antolaketa-modua eta partaidetzarako eta hobekuntza didaktikorako ohiko bidea dira.
2. Arlo/irakasgaiari dagozkion mintegiez gain, Urteko Planean beste mintegi berezi batzuk zehaztu ahal izango dira, guztien interesa duten gai buruz (zehar-lerroak, jakintzagai arteko jardunak, ebaluazioa...) edo jakintzagai artekoei buruz jarduteko. Mintegi hauek behin-behineko izaera izango dute eta beren proposamenak dagokion organo erabakitzaileak ontzat ematen ditunean soilik izango dira tinkoak.
3. Irakasle guztiak ordurik gehien ematen duten gaiari dagokion Mintegikoak izango dira. Era berean, ikastetxean dauden Mintegi berezietako borondatezko partaideak izan daitezke.
4. Irakas-Jardueren Programan, funtzionatuko duten mintegiak eta bakoitzaren lanerako plana erabakiko dira.

5. Irakasgai/arloko mintegiek ondokoak egingo dituzte:

- a) Curriculum Proiektuaren erabakietan oinarrituz, maila bakoitzerako eta ebaluazioaldi bakoitzerako helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehaztu.
- b) Ebaluazio-irizpideak eta tresnak zehaztu.
- c) Ebaluazio-bilkura bakoitzean, talde desberdinetan eta bere gai/arloaren esparruan emaitzak aztertu, eta arazo orokorrei erantzunak eman.
- d) Egokitzat jotzen bada, dagokion irakasgai/arloari berrikuntzarako berriarazo proiektuak Irakas-Jardueren Programan sartzeko proposamena egin.

Mintegiei dagokie halaber:

- Ikastetxearen Curriculum Proiektuan sartzeko, irakasgai/arloaren curriculum-proposamen bat eta egokitzat jotzen dituen aldakuntza-proposamenak lantzea;
- Berrikuntzarako edo mintegiko kideen prestakuntzarako lanerako plana garatzea Zuzendaritza-Taldearekin batera.

6. Mintegiak astero bilduko dira, lanorduetan, finkatutako orduan. Irakasgai/arloei dagozkien Mintegiak ikasturtearen hasieran bilduko dira, kurtso desberdinetako urteko curriculumak, lehen ebaluazioaldian praktikan jarriko dena, zehazteko; ebaluazio-bilera bakoitzaren ondoren, emaitzak aztertzeke eta hurrengo irakastaldia programatzeko eta ikasturtea amaitu ondoren, lortutako emaitzak eta programazioa nola bete den aztertzeke.

7. Mintegi bakoitzak Arduradun bat izango du, eta honen funtzioak ondokoak izango dira:

- a) Mintegiaren funtzionamenduaz arduratzea eta bere mintegiaren lana zuzentzea eta koordinatzea.
- b) Bilerak antolatzea, prestatzea eta zuzentzea.
- c) Zuzendaritza Taldeak Lurralde Ikuskaritza Buruari programazioak bidaltzeko ezarritako eguna baino lehen igortzea, horien kopia bana Zuzendaritza Taldearen esku eta Mintegian geratuko direlarik.
- d) Programaketaren edukiak eta gutxieneko eskakizun-maila bete daitezen arduratzea.
- e) Mintegi bileren ondoren dagokien akta jasotzea eta Nahikotasun-frogen eta amaierako ebaluazioen ondoren ikasturte hasieran egindako programazioaren eta horren burutzapen mailaren eta zergatien azterketa egingo da.
- f) Mintegiaren eskumenean diren egoitza eta gelen erabilpen egokia eta tratu egokia bermatu.

- g) Zuzendaritza Taldearekin astero bildu Batzorde Pedagogikoan, informazio guztia bere bitartez bideratzeko; hortaz, klaustroa bakarrik bilduko da garrantzi handiko gaiak eztabaidatzeko edota ez dagoenean adostasunik mintegien artean.
- h) Kurtsoan zehar Ekintza Osagarri eta Eskolatik Kanpo egingo diren ekintza guztien berri emateko arduraduna da (proposamenak Zuzendaritza-taldeak proposaturiko data baino lehen egingo lirateke).
- i) Zuzendaritza Taldetik datozen proposamen guztietan esku hartu.

### 3.5. HEZKUNTZA ZERBITZUAK

- 1. Hezkuntza-zerbitzuek irakasleriari laguntza emateko funtzioa dute, honek bere betebeharrak ahalik eta hobekien egin ditzan.
- 2. Ondoko hezkuntza-zerbitzuak izango dira:
  - a) Orientazio Zerbitzua.
  - b) Lantokietako Prestakuntza-Zerbitzua.
- 3. Zerbitzu bakoitzeko burua Zuzendaritza Taldeak izendatutako arduradun bat izango da.
- 4. Zerbitzu guztiek ikastetxeko aginte-organismoek emandako ildoen arabera jokatuko dute, Ikasketa-Buruaren, orientazioaren (a-c) edo zuzendariordetzaren (b-d) zuzendaritzapean, eta hauek aldizka Zuzendaritza-Taldeari eta Eskola Kontseiluari bere lanaren berri emango diete.
- 5. **Orientazio Zerbitzua** bere arduraduna izango den Orientatzaileak eta Orientazio Proiektuan parte hartuko duten taldeetako tutoreek osatuko dute.

Orientazio Zerbitzuak ondoko funtzioak beteko ditu:

- a) Orientazio-Plana egitea eta Zuzendaritza-Taldeari aurkeztea onar dezan.
- b) Tutoreentzako informazio, prestakuntza eta aholkularitza-mekanismoak finkatzea, Orientazio-Plana eta tutoretza-jarduna zuzen burutzeko.
- c) Tutoreei ez dagozkien jardun orokorrak antolatzea, ikasleen orientabiderako.
- d) Ikasleriaren arazo orokorrak aztertzea eta ikasleentzako laguntzaren antolaketarako eta irakas-jardunaren hobekuntzarako proposamenak egitea.

Orientatzaileak ondoko funtzio eta zereginak beteko ditu:

- a) Orientazio-Zerbitzua koordinatzea, arduradun gisa.

- b) Tutoreei aholkularitza eta laguntza ematea tutoretza-funtzioa betetzeko, batez ere tutoreen koordinazioaren eta prestakuntzaren bidez, eta halaber baliabideak bilatu behar dituztenean laguntzea.
- c) Bokazio-orientazio prozesuak diseinatzea, informazio eta autoorientabide-jardueren bidez.
- d) Ikasleriaren aniztasunari erantzuna emateko jarduerak bultzatzea.
- e) Eskola-arazoak edo hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen egoera aztertzea tutorearekin batera, eta kasu bakoitzean egokitzat jotzen diren jardunak erabakitzea.
- f) Beharrezkoa denean, ikasle baten banakako orientazioa egitea.
- g) Beharrezkoa denean, gurasoen banakako orientazioa egitea.

**6. Lantokietako Prestakuntza Zerbitzua** praktiketako arduradunak eta ikasleei Lantegi arloa erakusten dieten irakasleek osatuko dute. Beren funtzioa, praktika hauek burutzeko enprekin harremanetan jartzea, enpresarekin egin beharreko lanerako plana definitzea, praktiken jarraitzea egitea eta bere ebaluazioa burutzea da.

### 3.6. ESKOLA ZERBITZUAK

1. Ikastetxeak ondoko eskola-zerbitzuak izango ditu:
  - a) Liburutegia.
  - b) Eskola-Garraioa.
  - c) Eskolako Jangela.
2. Zerbitzu hauetako bakoitzaren buru zuzendaritza izango da. Gainera, borondatez izena ematen duten gurasoen eta ikasleen laguntza izango dute.
3. Segurtasun Batzordearen Ikastetxearen Hustuketa Plana diseinatu eta larrialdi egoera baten aurrean gauzatzeko moduz arduratuko da.
4. Eskola Garraio Zerbitzua ikasleen garraioaren antolaketaz arduratuko da.
5. Eskolako jangelako Batzordea Jantokiko arduradunak, zuzendariak eta zerbitzua erabiltzen duten bi gurasok eta bi ikaslek osatuko dute.

## **II. ANITURRI INSTITUTUKO KUDEAKETA TRESNAK**

Ikastetxearen kudeaketan erabiliko diren tresnak ondorengoak izango dira:

a) Hezkuntza-antolaketarako eta koordinaziorako tresnak:

- Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua
- Curriculum-Proiektua
- Hizkuntza-Proiektua
- Antolakuntza eta Jarduera-Araudia
- Kudeaketa-Proiektua
- Urteko Plana
- Urteko Memoria

b) Irakas -jardunerako tresnak:

- programazio didaktikoak
- curriculum-egokitzapenak

c) Dokumentazio akademikoa:

- ebaluazioan
- curriculum-egokitzapenetan

d) Kudeaketa ekonomikorako tresnak.

### **1. ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIO AKADEMIKORAKO TRESNAK**

#### **1.1. EPE ERTAINERAKO PROIEKTUAK**

1. Hezkuntza Proiektua bakarra izango da ikastetxe osorako, nahiz eta bertan etapa bat baino gehiago irakatsi. Hau lantzea eta onestea Eskola Kontseiluari dagokio.
2. Curriculum Proiektuek ikastetxean irakasten den etapa bakoitzaren berri emango dute, beraien artean beharrezko koherentzia izango dute eta horien lanketa eta onespena Irakasle-Klaustroari dagokio.
3. Kudeaketa Proiektua, Urteko Plana eta Urteko Memoria Zuzendaritza Taldeak egingo du eta Eskola Kontseiluak onespena emango dio.



4. Proiektu desberdinen aldaketak proiektu horiek egitea eta onestea dagokion organo berberak landu eta onetsiko ditu.
5. Lanketa-prozesuek organo arduradunean ordezkaritza duten kideen ahalik eta partaidetzarik handiena ziurtatu behar dute.
6. Proiektu hauetako edozein aldatzeko ekimenak, gutxienez, bere onespeneren ardura duen organokideen % 25 beharko du.
7. Proiektu hauek Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara igorriko dira, indarrean dagoen legeriarekin bat datozen egiazta dezan.
8. Ikastetxeak eskola-komunitateak Proiektu hauek ezagutu ahal izateko mekanismoak finkatuko ditu. Eskola-komunitateko edozein kidek beren kopia bat eskatu ahal izango du.

## 1.2. URTEKO PLANA

1. Urteko Plana osatzen dutenak ondorengoak dira:
  - a) Irakas-Jardueren Programa.
  - b) Prestakuntza-Jardueren, Jarduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpoko Jardueren Programa.
  - c) Urteko Kudeaketa-Programa.
2. Irakas-jardueren programa lantzea Irakasle Klaustroari dagokio; Prestakuntza-Jardueren, Jarduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpoko Jardueren Programa zuzendaritza eta mintegiei; eta, Urteko Kudeaketa-Programa administrariari.
3. Eskola Kontseiluari dagokio Urteko Plana onestea. Irakas-Jardueren Programa Klaustroak onetsiko du. Eskola Kontseiluak aipatutako programari oniritzia emango dio.
4. Programa desberdinen lanketa-prozesua aurreko ikasturteko memoriarekin hasiko da eta urriaren 31 baino lehen bukatuko da. Jarraitu beharreko urratsak ondokoak dira:
  - a) Egoeraren ebaluazioan eta organo eta talde desberdinen proposamenetan oinarrituz, programa bakoitzaren ardura duen organoak ikasturtean planteatzen diren helburuak eta jarduerak zehaztuko ditu.
  - b) Zuzendaritza-Taldeak talde eta batzordetako arduradunei proiektuak zehazteko eta garatzeko eskatuko die.
  - c) Zuzendaritza Taldeak lan-prozedura koordinatu du eta Urteko Plan osoaren koherentzia lortzen saiatuko da.
  - d) Programak landu ondoren, Zuzendaritza-Taldeak Plana Eskola Kontseiluari aurkeztuko dio, honek onespena eman diezaion.

5. Gurasoen eta ikasleen ordezkariak beren partaidetza-organoetan Urteko Planaren berri emango dute, onetsia izan baino lehen.
6. Plana Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren esku utziko du, eta horrek, baldin eta legezko arauak eta Hezkuntza Sailaren xedapenak betetzen ez baditu, aldakuntzarako edo hobekuntzarako proposamenak egin ahal izango ditu.
7. Irakas-jardueren programak ondorengoak jasotzen ditu:
  - a) Antolaketari buruzko urteko erabakiak, Antolakuntza eta Jarduera-Araudian xedatutakoaren arabera.
  - b) Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan sartzen diren aldaketak.
  - c) Curriculum-Proiektuaren garapenerako berariazko proiektuak.
  - d) Ikastetxearen ebaluazioa egiteko irizpideak eta modua.
8. Hezkuntza Sailak edo beste edozein erakundek egin ditzakeen deialdietara ikastetxeak aurkezten dituen berrikuntza, prestakuntza, eta abarrekoei dagozkien proiektuak Urteko Planean sartuko dira.
9. Ebaluazio bakoitzaren ondoren, Zuzendaritza Taldeak Irakas-Jardueren Programa betetzen ote den ebaluatuko du, inplikaturako talde eta pertsonekin. Ikasketa-Buruak Eskola Kontseiluari ebaluazio honen alderdirik garrantzitsuenen berri emango dio. Ikasturte bukaeran, klaustroak txosten bat landuko du programaren eta honen burutzapenari eta irakaskuntza-esparruan ikastetxeak duen funtzionamendu orokorrari buruzko balorazioa emanez.
10. Prestakuntza Jardueren, Jarduera osagarrien eta Eskolaz Kanpoko Jardueren Programak ondorengo alderdiak zehaztuko ditu:
  - a) Ikastetxearen Prestakuntza Plana eta eskola-garaian irakasleek prestakuntza-jardueretan parte hartzeko irizpideak.
  - b) Jarduera Osagarriak, hau da, kurtso, ziklo edo etapa bateko ikasle guztiek burutu beharreko aparteko jarduerak, normalean eskolatik kanpo, Curriculum-Proiektuaren garapen gisa.
  - c) Eskolaz Kanpoko Jarduerak, hau da, ikasle guztiei irakastorduetatik kanpo borondatez parte hartzeko eskaintzen zaizkienak.
11. Ikastetxeko Prestakuntza Planean, irakasle guztientzat edo irakasle talde batentzat, irakas-jardunean sumatu diren beharrei erantzuteko, ikastetxean izango diren prestakuntza-jarduerak agertuko dira, antolaketari eta ordutegiari dagozkien aldaketak espresuki adieraziz. Era berean, ikastetxeko kideek lan ordutegiaren barruan parte hartuko duten Urteko Planeko eta Eskualdeko Prestakuntza-Planeko jarduerak sartuko dira. Eskolako ordutegian prestakuntza-jardueretan parte hartzeko lehentasuna duten irizpideak ondorengoak izango dira:

- a) Ikastetxeak duen interesa, bere Curriculum-Proiektuaren arabera.
- b) Ikastetxearen eta ikasgela jakin baten jardun normalean eragin negatiborik ez izatea.

**12.** Jarduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpokoan Programetan, jarduera, beronen arduraduna, programak norentzat diren, helburuak eta jardueraren programazioa, tokia, unea eta kostua azalduko dira, finantzaketa-iturria adieraziz.

**13.** Ikasturte amaieran Batzorde Iraunkorrak honen guztiaren ebaluazioa egingo du eta bere emaitzak eta proposamenak Eskola Kontseiluari igorriko dizkio, eztabaidatu eta Urteko Memorian sar daitezen.

**14.** Urteko kudeaketa-programak ondorengo alderdiok barne hartuko ditu:

- a) Programa definitzen duten irizpideak eta lehentasunak.
- b) Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua.
- c) Inbentarioaren aldaketak.

**15.** Zuzendaritza Taldearen zuzendaritzapean eta Zuzendariaren ardurapean, Administratzaileak Urteko Kudeaketa-Programa kudeatuko du. Sei hilero, Eskola Kontseiluari programa zenbateraino betetzen den jakinaraziko dio eta egindako gastuen justifikazioa aurkeztuko dio, aurrez Batzorde Iraunkorrak ikus-onesita.

**16.** Aurrekontua aldatzea beharrezkoa denean, beronetan aurreikusitako mugak gainditu gabe, Batzorde Iraunkorra bilduko da, ontzat emateko. Aldaketa hauen berri Eskola Kontseiluari emango zaio.

**17.** Ikasturtea bukatzean Administratzaileak, Zuzendaritza Taldeak ontzat emanik, Batzorde Iraunkorrari azken likidazioa aurkeztuko dio. Batzorde berberak programaren gauzatzearen ebaluazio orokorra egingo du eta Eskola Kontseiluari bere ondorioak eta proposamenak aurkeztuko dizkio.

### **1.3. URTEKO MEMORIA**

**1.** Urteko Memoriak, gutxienez, ondorengo gaiak jasoko ditu:

- a) Ikasturtean zehar izan diren eskolako gertaera garrantzitsuenak.
- b) Ikasleriaren emaitza akademikoen balorazioa.
- c) Ikastetxearen funtzionamenduaren analisia eta hobetzeko proposamenak.
- d) Irakas-Jardueren Programaren ebaluazioa. Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan sartu beharreko ondorioak eta hezkuntza-hobekuntzarako proposamenak.
- e) Prestakuntza-Jardueren, Jarduera Osagarrien eta Eskolaz Kanpokoan Programaren ebaluazioa.
- f) Gastuen analisia.

2. Zuzendaritza taldeak, urteko memoriaren zirriborroa landuko du klaustroak eta batzordeek, bakoitza dagokion eskumen-esparruan, egindako txostenetan oinarrituz. Eskola kontseiluak aztertu eta, egoki bada, onetsi egingo du.
3. Partaidetza eta lankidetzaren organoek, memoria hori lantzeko beren balorazioak edo landutako proposamena aldatzeko iradokizunak helarazi ahal izango dizkiote zuzendaritza taldeari.

## **2. IRAKAS-JARDUNERAKO TRESNAK**

### **2.1. PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK**

1. Irakasle bakoitzak ikasleekin egingo dituen eskola-jardueren programazioa zehazteko autonomia eta ardura dauka, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan erabakitako esparruan. Autonomia hau errespetatuz, programazio desberdinak koordinatu egingo dira, bai zikloa/maila eta bai arloa kontuan hartuz.  
Programazioak irakasgaia eta mailaren arabera izango dira eta kontuan hartuko dute zein talderi irakatsi behar zaion.
2. Mintegiek, Ikastetxearen Curriculum Proiektuan hartutako akordioetan oinarrituz, programazioak burutzeko irizpideak zehaztuko dituzte.
3. Urteko programazio orokor bat eta dagokion mintegiak zehaztuko dituen epe laburragorako programazio jarraipenak landuko dira.  
Programazioetan, Urteko Planean jasotako berrikuntza eta prestakuntza-proiektuen garapenean dagozkien atalak kontuan izango dira.
4. Landutakoan, programazioak mintegiaren eta Irakasle-Klaustroaren esku egongo dira eta egokiak iruditzen zaizkien aldakuntza-iradokizunak egin ahal izango dituzte, baldin eta Ikastetxearen Curriculum-Proiektuarekiko koherentziarik ez dutela irizten badiote. Eskola Kontseiluak Hezkuntza Proiektuarekiko duten koherentzia egiaztatzeko aztertu ahal izango ditu.

### **2.2. IRAKAS-JARDUNAREN JARRAITZEA ETA KOORDINAZIOA**

Mintegiek programazio didaktikoen gauzatzearen jarraipena egingo dute eta irakas-jarduna koordinatuko dute. Horretarako, Mintegiko Arduradunak ondorengo hauek agertzen diren dokumentuak jasoko ditu:

- Taldearen irizpide orokorrak.
- Kide bakoitzaren urteko programazioak.
- Akordioen eta konpromisoen aktak.
- Lanerako planean, programazioen praktika ezagutu eta baloratzeko erabat garrantzitsutzat jo diren datuak.

- Taldeak landu eta proposatutako curriculum-materialak.
- Ikasleentzat nahiz irakasleentzat taldean zehaztu diren frogak, inkestak...

### 3. DOKUMENTAZIO AKADEMIKOA

1. Ikasle bakoitzak oinarrizko eta derrigorrezko dokumentuak artxibatuko direla bermatuko duen espediente pertsonala edukiko du. Aipatu espedienteak ondoko dokumentuak izango dira:
  - a) Ikaslearen Fitxa Pertsonala.
  - b) Espediente akademikoa.
  - c) Bere eskolako bizitzan eragina duten txosten garrantzitsuak.
  - d) Curriculum-egokitzapenak eta salbuespenak, baldin eta baleude.
2. Ikaslearen espediente pertsonala eta bertan jaso beharreko dokumentazioa betetzea ikaslearen tutoreari dagokio.
3. Ikasle bakoitzak Ikasketa historiala izango du, ikastetxean gordeko dena bertan dagoen bitartean. Eskolatzea bukatzean ikasleari emango zaio.
4. Dokumentu hauek gordetzea eta artxibatzea ikastetxeko Idazkariari dagokio. Jasotako informazioa pertsonen intimitaterako eskubideak babesten du eta beraz, ezin izango dira berez hezkuntzazkoak ez diren helburuetarako erabili.
5. Tutoreak, ikaslearen espediente pertsonalaz gain eta tutoreak berak bakarrik erabiltzeko, irakasle desberdinek edo ikasleak berak edo honen familiak emandako informazioetatik jasotako beste datu batzuk erregistratuko ditu, asistentzia-hutsegiteak eta beste hutsegite batzuk barne. Datu horiekin guztiekin taldeko ikasle bakoitzaren jarraipena egingo du.
6. Ikasturte bakoitzaren amaieran, ebaluazioaren emaitzak tutoreak/pertsonal administratiboak beteko dituen aktetan jarriko dira.
7. DBHko ebaluazioetan (1. ebaluazioa, 2. ebaluazioa eta ohikoa) notak horretarako prestatuta dagoen programa informatikoan sartuko dira garaiz. Bertatik eskuratuko dira ebaluazio-bileran erabiliko diren nota globalen aktak eta estatistika-datuak eta familiei igorriko zaizkien txostenak.

Batxilergoko kurtsoetan ebaluazio-saioak honako hauek izango dira: 1.a, 2.a, 3.a, ohikoa eta ez-ohikoa.

Heziketa Zikloetako ebaluazio-saioak honako hauek izango dira:

- Heziketa zikloetako 1. mailan: 1. ebaluazioa, 2. ebaluazioa, 1. mailako 1. Amaierako ebaluazioa eta 1. mailako 2. Amaierako ebaluazioa.
- Heziketa zikloetako 2. mailan: 1. ebaluazioa, 2. mailako 1. Amaierako ebaluazioa eta 2. mailako 2. Amaierako ebaluazioa.

Inika programan jasoko dira ebaluazio bakoitzeko emaitza akademikoak

8. Ikasle bat etapa bukatu gabe Aniturrira aldatzen denean, institutuko Idazkariak espedienteen aplikazioan ikaslearen historiala jasoko du.
9. Ikasle bat etapa bukatu gabe beste ikastetxe batera aldatzen denean, institutuko Idazkariak, ikastetxe horren eskaria jaso ondoren, ikaslearen historiala igorriko dio.

#### **4. EKONOMIA KUDEAKETARAKO TRESNAK**

1. Ekonomia kudeaketarako, ondorengoko tresnak erabiliko dira:
  - Ikastetxeko Baliabideen Inbentarioa.
  - Diru-Sarrereren eta Gastuen Urteko Aurrekontua.
  - Kontabilitate-liburuak.
  - Egindako gastuen egiaztagiria.
  - Aurrekontuaren balantzea eta likidazioa.
2. Ikastetxeen ekonomia kudeaketak izaera ekonomiko-finantzarioa duen kontu hartzailetza-kontrola izango du.
3. Zuzendariak Administrazioaren aurrean ikastetxearen ekonomia kudeaketaren berri emango du. Aurrekontu-ekitaldia bukatu ondoren eta, Hezkuntza-Administrazioak eskatuta, zuzendariak sinatutako ziurtagiriaren bidez, bukatu berria den ekitaldiari dagokion ekonomia kudeaketa justifikatuko du ikastetxeak, likidazio-kontu batean Ikastetxeko Aurrekontuan agertzen diren baliabideak zertarako erabili diren adieraziz.
4. Gastu bakoitzaren egiaztagiri zehatzak ikastetxean geratuko dira, dagozkien kontuhartzailetza-kontrolako organoen esku eta, hala badagokio, Kontu Publikoetarako Euskal Auzitegiaren eskura, dagozkien egiaztapenak egin ahal izan ditzaten.

### III. ESKOLA JARDUERAREN FUNZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK

#### 1. IRAKASLERIARI DAGOZKION ARAUAK

1. Irakasleek ikastetxean 30 ordu emango dituzte astean; horietatik 23 ohiko egonaldiari dagozkionak dira eta gainontzekoak, normalean ostegun arratsaldetan, koordinazio-lanetarako erabiliko dute.
2. Irakasleek Bigarren Hezkuntzako Institutuetako Ikasturtea antolatzeko Ikasturte Hasierako Zirkularrak ezartzen duen klase ordu kopurua eman beharko dute. Lagun bakarreko organoetako kideen klase-emankizunen murrizketa aipatu zirkularrak kargu bakoitzaren zereginentzat zehazten dituenak izango dira.

Era berean, irakasleek aipatu zirkularrak zehazten duenaren arabera zaintza orduak izango dituzte. Zaintza orduetan irakasleak irakaslerik gabe dauden ikastaldeak bere kargu hartuko ditu eta ikastetxearen funtzionamendu egokiaz eta gerta daitezkeen gorabeheraz arduratuko da; horren guztiaren berri Ikasketak Buruari emanaz.

3. Tutoreek bi ordu erabiliko dituzte astean tutoretza-lanetarako edo Irakas-Jardunen Programan esleitutako karguari dagozkionak betetzeko. Bilkura hauetarako, bertaratu behar dutenek irakastordurik ez izateko moduan moldatuko da ordutegia.
4. Irakasle guztiek arauen arabera esleituko zaizkien irakas-zereginak hartuko dituzte beren gain eta funtzio bat (tutoretza, zuzendaritza eta kudeaketa, partaidetza edo ordezkarietza, koordinazioa eta zerbitzuak) beteko dute, Araudi honetan ezarritako organoen eta funtzioen arabera.

Zuzendariak, irizpide pedagogikoak kontuan hartuta, zuzendaritza-taldeak, irakas-talde/mintegietako taldeak eta, hala badagokio, interesatuak esandakoa entzun ondoren, zereginen esleipena erabaki eta zalantzazko arazoak konpondu ahal izango ditu.

Irakasleen ordutegia Irakas-Jardueren Programan sartuko da eta Irakasle Klaustroak onetsiko du. Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikora igorriko da, honek ikus-onetsi dezan. Aipatu ordutegia jendaurrean erakutsiko da, ikus daitezkeen tokian ezarriko da eta hezkuntza-komunitateko edozein kidek eskuratu ahal izango du. Ordutegiaren kopia bat Eskola Kontseiluari emango zaio.

5. Zuzendaritza Taldeak proposatuta, kargu desberdinak, hau da, zuzendaritza, kudeaketa, koordinazio eta ordezkaritza-karguak beteko dituzten pertsonak izendatuko dira, Araudi honetan finkatutako ordu-murrizketekin edo Urteko Planean zehazten direnekin batera.

Irakasleen eta ikasleen guztizko irakastorduak kontuan hartuta, eta geratzen den denboraren arabera eta irakas-taldeetako arduradunak entzunda, Zuzendaritza Taldeak zereginen esleipen-irizpide proposamen bat egingo du. Proposamen honetan, arlo edo irakasgai jakin batzuen banaketari, hezkuntza-indargarriei eta Irakas-Jardueren Programatik eta Prestakuntza Planetik sortutako beharrei, eta abarrekoiei dagokienez, lehenespen batzuk finkatuko ditu, zeregin bakoitza beteko duen pertsona (edo irakas-taldea) eta horretarako izango duen denbora adieraziz.

Era berean, mintegi bakoitzari dagozkion irakasgaien eta kideko gaien ordu kopurua zehaztuko da, kurtsoak eta taldeak adieraziz.

6. Proposamen honetan oinarrituz, Ikasketa Buruak tutoretzak eta gainontzeko irakas-zereginak esleituko ditu.
7. Ikasketa Buruak tutoretzak eta irakas-jardunak ondoko prozedurari jarraiki esleituko ditu:
  - Irakasgai mintegi bakoitzak bere kideen artean irakas-zereginen banaketa-proposamen bat landuko du, Zuzendaritza Taldeak onetsi beharko duena. Banaketa honetan ahal den neurrian kontuan izango dira talde-ikasgela bakoitzean irakasle gehiegik esku hartu ez dezan bultzatzen duten antolaketa eta pedagogia irizpideak, eta irakasle bakoitzak ahalik eta talde gutxienetan eskolak ematea ahalbidetzen dutenak.
8. Erabilera pertsonalerako, mugikorrek baimendutako esparruetan soilik erabiliko dira.

## **2. IKASLERIARI BURUZKO ARAUAK**

1. Ikasleen eskola-jarduna jarraia izango da. Bigarren Hezkuntzako Institutuetako Ikasturtea antolatzeko Ikasturte Hasierako Zirkularrak ezartzen duen araudiaren arabera zenbait egunetan jardunaldia jarraitua izan ahal izango da.
2. Irakasgai bakoitzari eman beharreko denbora guztia eguneko 55 minutuko saiotan banatuko da eta ezin izango dira egun berean bi saio programatu. Hala ere, aurreko arautik kanpo gera daiteke ikasgairan bat bi saioak jarraian emateko aukera, Gorputz Heziketan adibidez.
3. Ikasle guztiek gutxienez tutore baten erantzukizunpean dagoen erreferentzi talde bat izango dute.



4. Maila bereko ikasleen ohiko taldeak honako irizpideoi jarraiki eratuko dira:  
Talde guztiek antzeko ikasle-kopurua izango dute, ikasleren baten baldintzek edota premiek talde txikiagoak egitea eskatzen dutenean izan ezik.
5. Maila/ziklo bereko ikasleak erreferentzia taldeak ez diren bestelako eratan taldekatu ahal izango dira edota une jakinetan zenbait jarduera burutzeko kide gutxiagoko taldetan banatu. Irakas-Jardueren Urteko Programan talde horiek eratzeko irizpideak, zein taldetan eta zer jarduera burutzeko erabiliko diren zehaztuko da.

### **3. EGOITZA ETA EKIPAMENDUEN ERABILERARI BURUZKO ARAUAK**

1. Ikastetxeko egoitzak eta baliabideak, batez ere irakas-jarduerak burutzeko erabiliko dira.

Talde bakoitzari ikasgela bat esleituko zaio.

2. Berariazko jarduerak burutzeko leku komunak, ahal den neurrian, talde guztien hezkuntza-premiak asetzeko moduan banatuko dira. Ikasturte bakoitzeko Irakas-Jardueren Programan leku horiek erabiltzeko irizpideak eta ordu-banaketa ezarriko dira.

3. Baliabide didaktikoak mintegi didaktikoen ardurapean egongo dira. Mintegiak arduratuko dira baliabideak zaintzeaz, antolatzeaz eta banatzeaz. Era berean, beraiei dagokie baliabide berriak erostea, irakasleriaren eskaria, aurrekontua eta Zuzendaritza Taldeak, irakas-taldeen diotena entzun ondoren, ezarritako lehentasunak kontuan hartuta.

Baliabide didaktikoak erabili ahal izateko, irakasle bakoitzak behar dituen baliabide eta ekipamenduak aurrerapen nahikoarekin eskatuko dizkio mintegi buruari.

4. Ikastetxeko ikasleen Gurasoen Elkarteak, ohiko zereginak egiteko edo bertako partaideei nahiz ikasleei zuzendutako jarduerak burutzeko lokalen bat behar izanez gero, zuzendaritzari adieraziko dio. Zuzendaritzak eskariei erantzuna emango die, beti ere, eskola-jardunaren bilakaera normalari eragiten ez badiote.

Ikastetxeko ikasleen elkarteek trataera bera jasoko dute.

5. Ikastetxeko egoitzak, publikoa baita ikastetxea, gizarte-komunitatearen mesederako eta, batik bat, haur eta gazteen onerako diren kultur, gizarte edo kirol jarduerak burutzeko erabil daitezke. Hala ere, egoitza horiek ezin dira erabili ikastetxeak edota bertako elkarteek antolatutako jarduerak oztopatzen dituzten ekintzak burutzeko. Eskola Kontseiluak zehaztuko ditu ikastetxeko lokalak erabiltzeko dauden lehentasunak eta irizpide orokorrak; alabaina, kontuan izango du beti euskal eskola publikoaren berezko aniztasuna.
6. Egoitzaren bat erabili nahi duten erakunde, legezko elkarte edota norbanakoek lehendabiziko eskaria Udaletxeari zuzenduko diote herriko lokalak eskatuz. Herrian lokal egokirik ez balego Udaletxeak Ikastetxeko Zuzendaritzari aurkeztuko lioke eskabidea. Eskabide horretan burutu nahi duten jarduera, unea, iraupena eta zenbat lokal behar dituzten adierazi beharko dute. Era berean, burutuko diren jardueren eta gerta daitezkeen kalteen erantzukizuna hartuko dute beren gain.
7. Ikastetxeko Zuzendaritzak, indarrean dagoen arautegiaren arabera eta Eskola Kontseiluaren irizpideei jarraiki, ikastetxeko egoitzak erabiltzeko oniritzia emango du. Era berean, garbiketa, jagoletza eta abarrerako tasak ezar ditzake eta gerta daitezkeen kalteak konpontzeko depositu bat eska dezake; alabaina, sortutako gastuak ordaindu ondoren, likidatu eta itzuli egin beharko du depositu hori.
8. Eskolako Jantokiaren erabilerari dagokionez, eskolako Zuzendaritzak, Hezkuntza Saileko zerbitzu juridikoekin batera, jakinarazten du jantoki zerbitzua erabiltzen duten ikasleak ikastetxearen ardurapean daudela eta DBHko ikasleak ezin izango direla ikastetxetik irten bazkaltzeko jarritako ordutegian. Hau dela eta aipatutako zerbitzua erabiltzen ez duen ikasleria ez da eskolaren ardurapekoa izango eta ezin izango da bitartean bertan geratu.

#### **4. EBALUAZIO ETA PROMOZIOARI BURUZKO ARAUAK**

1. Ikasturtea, hiru alditan banatuko da. Irakasle bakoitzak bere ikasgaiaren programazioa egingo du, kontuan hartuko dituelarik gai bakoitzaren ziklo/mintegiko taldeak finkatutako jarraibideak, Ikastetxeko Curriculum Proiektuan jasotakoa aplikatuz. Ikasturtearen hasieran, irakasleek irakaskuntzan erabiliko diren oinarriko helburu eta edukien eta ebaluazio-irizpideen berri emango diete ikasleei Informazio hori ikasle guztiei helaraziko zaie eta beharrezkoa izanez gero, ikasle nahiz gurasoei argibideak emango zaizkie ahoz, beraiekin egingo diren bileretan.

Arloetako programazioak Inikan igoko dira.

2. Ikasleen ikaskuntzen ebaluazioa banan banakakoa eta jarraitua izango da eta irakasle guztiek egingo dute taldean. Tutorea izango da talde horren koordinatzailea. Irakasle bakoitza irakasten duen irakasgaiaren ebaluazioaren arduraduna izango da.
3. Aldi bakoitzaren bukaeran ikasleen ikaskuntzak eta irakas-jarduna ebaluatuko dira. Irakas-Jardueren Programan aldi horiek, ebaluazio-bilkuren egunak eta erabiliko diren tresnak adierazi beharko dira, beti ere, Curriculum-Proiektuaren irizpideen arabera. Guzti hau aurrera eraman ahal izateko irakasle bakoitzak bere ikasgaiko notak eta anotazioak sartuko ditu Inikan bilera baino 48 ordu lehenago.
4. Ikasketa-buruak ebaluazio-bilkuretara joateko deia egingo die irakasle guztiei eta horiek bertara joan beharko dute ezinbestean.

Ebaluazio bilkura hasieran tutoreak dagokion taldeari buruzko informazio hau emango dio irakasle bakoitzari:

- Kalifikazio-orriaren fotokopia, zehazpen estatistiko labur batekin.
  - Ikaslearen jarrera eta errendimenduari buruzko oharra.
  - Ebaluazio-bileran tutoreak gorabeheren akta idatziko du. Akta hau Inikan idatzi eta, bertatik deskargatuta, sare lokalean igoko ditu.
5. Amaierako ebaluazioa zehazteko DBHko eta Batxilergoetako ikasgaietarako ezarritako helburuak eta ebaluazio irizpideak hartuko dira kontuan.
  6. Tutoreak idatziz emango die ikasle eta gurasoei ebaluazioari buruzko informazioa. Elkarrizketa pertsonalak egingo dira helburu horrekin. Etapa bukatutakoan orientabide gisako aholkuak ere emango zaizkie ikasle eta gurasoei, tutoreak Orientazio-Zerbitzuaren laguntzaz egin ondoren proposatuko dituenak.
  7. Ikasleen promozioa maila ezberdinetan indarrean dagoen legeak zehazten duenaren arabera egingo da.
  8. Ikasleen titulazioa indarrean dagoen legeak zehazten duenaren arabera egingo da.
  9. Ikasturte bakoitzaren amaieran aktan jasoko dira ikasleek, hurrenez hurren, DBH, Batxilergo arlo, ikasgai eta modulu ezberdinetan lortutako ebaluazioak.
    - DBHko kalifikazioa ondoko terminoetan emango da bakoitzari dagokionaren arabera: 9-10 Bikain, 7-8 Oso ongi, 6 Ongi, 5 Nahikoa edo 1-4 Gutxi.

- Batxilergoetan, Heziketa Zikloetan eta Lanbide Hastapenerako Prestakuntzan kalifikazioa 1etik 10a bitarteko zenbakien bidez –hamarrenik gabe- emango da. 5a edo handiagoak diren kalifikazioak positiboak izango dira eta negatiboak gainerakoak.

**10.** Ebaluazioa bukatu bezain laster, mintegi didaktikoek amaitu berri den ebaluazioaren jarraipena eta ikasleen kalifikazioak aztertuko dituzte, batez ere ebaluazio negatibo gehiago dauden ikasleen taldeena, neurri egokiak proposatzeko.

Gai bakoitzaren mintegietan, talde eta maila desberdinetako ebaluazioen emaitzak ikusi ondoren, programazioak aztertuko dira. Gabezia esanguratsuak daudela ikusiz gero, egoki iruditzen zaizkien neurriak hartuko dituzte mintegiek. Era berean, orientazio mintegiak HPB ikasleen jarraipena egingo du.

Orientazio Zerbitzuko arduradunak eta jakintzagai jakinen mintegietako arduradunek honakoak jasotzen dituen txosten bat egin beharko dute: alde batetik, ebaluazioaren emaitzak eta, bestetik, ikusitako arazo nagusiak eta hartutako neurriak, lehenak ikasleen ikuspuntutik begiratuta eta bigarrenak jakintzagaiaren ikuspuntutik begiratuta. Txosten hori Ikasketa-Buruari emango diote.

**11.** Aipatutako informazio guztia Irakasle Klaustroari jakinaraziko zaio, emaitzak eta ikusitako arazoak azter ditzan. Zuzendaritza-Taldeak, hala nahi duelako edo eta irakas-talderen batek proposatu diolako ere, hobekuntzak proposa ditzake. Ikasturtearen bukaeran txosten bat egingo du eta ondokoak adieraziko ditu bertan: eskola-jardueren garapena, ikasketen emaitzak, ikastetxearen funtzionamendua eta, azkenik, irakas-jardueren programa betetzen ote den.

**12.** Ikasketa-buruak ebaluazioaren emaitzak, arazo orokorrak eta hobekuntza-proposamenak jakinaraziko dizkio Eskola Kontseiluari, era berean, zuzendariak Gurasoen Batzarrari emango dio ikasturteko emaitza orokorren informazioa.

**13.** Ikasleek eta horien guraso nahiz tutoreek ikasturte bukaerako ebaluazioak erreklamatzeko aukera izango dute. Halaber, edozein proba edo idatzizko lan zuzentzerakoan erabilitako irizpideak ezagutzeko eskubidea dute eta jarritako kalifikazioa erreklamatzekoa, boletina jaso eta bi eguneko epean.

Lehenbizi, kalifikazioarekin bat ez badatoz, irakasgaia irakasten duen irakasleari aurkeztuko diote erreklamazioa. Irakasleak ebaluazio eta kalifikazio irizpideak azalduko dizkie eta ikasleak eta gurasoek esan beharrekoak entzun ostean, kalifikazioa bere hartan gordetzeko edo aldatzeko erabakia hartuko du.

Irakaslearen erabakiarekin bat ez badatoz, Ikastetxeko Zuzendaritzara jo dezakete. Erreklamazioa egiteko, idatzi bat aurkeztuko diote Ikasketa Buruari. Idatzi horretan, ondoko hauek zehaztu behar dituzte: erreklamazioa egiteko dituzten arrazoiak eta ze proba edo ariketa berrikusi nahi dituzten. Zuzendaritzak dagokion didaktika-mintegiari aurkeztuko dio erreklamazioa. Didaktika-mintegiak kalifikazioa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita mintegiak erabakitako ebaluazio kalifikazio irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta erreklamazioa egin duenari idatziz erantzungo dio.

Bukatzeko, Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren aurrean aurkez dezakete erreklamazioa; hain zuzen, horrek hartuko du behin betiko erabakia. Ikastetxeak, Ikuskaritzak eskatzen badio, eskura duen dokumentazioa eta egoki iruditzen zaizkion alegazioak aurkeztuko ditu.

Aipatutako instantziaren batean lehen erabakia aldatuz gero, aktan eta ikaslearen espediente pertsonalean jasoko da horren berri.

## **5. IKASLEEN JARDUERA BEREZIEI BURUZKO ARAUAK**

1. Urteko programan onartutako jarduera osagarriak, curriculum-garapenaren zati baitira, derrigorrezkoak izango dira. Hala ere, gaixotasun arrazoiengatik edo medikuaren debekuz jarduera horietan parte ez hartzea onartuko da. Gurasoek edota ikasleak berak, adin nagusikoa bada, tutoreari aurkeztuko diote jarduera horietatik salbuetsita geratzeko eskabidea eta eskaeraren arrazoiak azalduko dizkiote.

Horrelako jarduerak ikasleek ordaindu behar dituzte. Hala ere, diru-laguntzak direla medio baliteke ikasleek ez ordaindu behar izatea jardueraren kostu osoa. Eskola Kontseiluak zehaztuko du jarduera bakoitzak izango duen dirulaguntza eta finkatuko ditu ekonomia arazoak dituzten ikasleentzako dirulaguntzak, kontuan izango duelarik Gurasoen Elkartearen iritzia.
2. Eskolaz kanpoko jardueretan nahi duten ikasleek parte har dezakete. Ikasle guztiek izango dute jarduera horiek burutzeko aukera. Inolaz ere ez da jarduera horietan parte hartzeko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-mekanismoak ezarriko.

Nolabaiteko kuota jartzekotan, gehienez burutu beharreko jardueren kostuak ordaintzeko bestekoa izango da eta ekonomia arazoak dituztenentzako dirulaguntzak edo salbuespenak aurreikusiko dira beti.
3. Ikasleak ikasgelan landutako ikaskuntzak sendotzeko lan pertsonala egitera derrigortuta daude. Zeregin horretan laguntzeko irakasleek etxean egin ditzaketen zenbait lan proposatu diezaiekete. Lan horiek osagarriak dira eta ezin izango dute bildu gelan bertan landu ez den ezagupenik.

## **6. SEGURTASUN ETA HIGIENEARI BURUZKO ARAUAK**

1. Zuzendaritza Taldeak ikastetxeko larrialditarako plana egingo du edonolako istripuri aurre egiteko asmoz eta lan horretarako behar adina laguntza eska dezake.
2. Ikastetxeak ongi hornitutako botikin bat izango du helduak iris daitezkeen leku batean. Zauriren bat gertatuz gero, kontu handiz ibili beharko da inor zaurituaren odolez zikin ez dadin. Zaurituari larrialdiko sendaketa egingo zaio apositu bat erabiliz, horretarako behin erabili eta botatzeko eskularruak erabiliko direlarik. Zorua edo altzairuren bat gorputzeko fluxuren batekin zikinduz gero, 1/10eko lixibaz garbitu beharko da zenbait minutuz. Zauria larria bada larrialdietara eramango dugu ikaslea.

## IV. KASTETXEKO BIZIKIDETZA ARAUDIA

### 1. IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHAR OROKORRAK

(EHAA-ko 2008ko abenduaren 16ko 201/2008 Dekretua)

#### 1.1. I. KAPITULUA: IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHAR OROKORRAK

##### a) I. ATALA: IKASLEEN ESKUBIDE OROKORRAK

(6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13., 14., 15., 16., 17., 18., 19., eta 20. artikulua)

1. Beren nortasunaren garapen osoa emango dien heziketa jasotzeko eskubidea dute ikasleek. Horretarako bideratuko dira beti ikastetxeko hezkuntza eta curriculum proiektuak, programazioak eta ikastetxea bera ere.
2. Aurreko puntuak aipatzen duen heziketak ondorengo hauek hartzen ditu:
  - a) Eskubide eta askatasunen errespetuan heztea, tolerantzia eta askatasunaren erabileran elkarbizitzako demokrazia-printzipioen barruan.
  - b) Lanerako ohitura intelektual eta teknikoak hartzea, baita zientzia, teknika eta gizadi mailako ezagutzak ere.
  - c) Pertsona osoaren prestakuntza eta bere ingurune sozial eta kulturalaren ezagutza eta Euskal Herriko historia, geografia, kultura eta errealitatea bereziki.
  - d) Euskal Autonomi Erkidegoaren aniztasun hizkuntzazkoa eta kulturalaren errespetuan oinarritutako prestakuntza; beti ere, Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19an 1/1993ko eta euskararen normalkuntzaren azaroaren 24an 10/1982ko legedietan ezarritakoari jarraituz.
  - e) Ikasle guztiek, baldintza berdinetan, derrigorrezko irakaskuntza aldia bukatzean, bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa izatea, euskararen erabilpena indartuz eta normalkuntza bultzatuz.
  - f) Garapen harmonikoa afektibitatearena, autonomia pertsonalarena, auto-estimua eta besteekin harremanetan izateko gaitasunarena.
  - g) Lanbidezko ekintzak, intelektualak eta ludikoak gauzatzeko gaitasuna.
  - h) Osasunaren babesa eta gaitasun fisikoen garapena ziurtatzeko duen hezkuntza.
  - i) Irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko saioetan parte hartzea.
  - j) Bakerako, askatasunerako eta herrien arteko elkarlan eta askatasunerako heziketa.
3. Ikasle adingabeek ikastetxeen nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea dute. (7. artikulua)
  - a) Ikastetxea eta bertako irakasleak behartuta daude tratatu txarrak edo haurren babesik gabeko edo arriskuko egoeren berri ematera Herri Administrazioei.

- b) Aurreko letran bezala, eskolatu gabe badago adingaberik edo absentismo-maila handia badu.
  - c) Eta gauza bera, emakumeen eta haurren aurkako indarkeria-zantzurik atzematen bada.
4. Ikasle adingabeek ikastetxeak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute. (8. artikulua)
- a) Ikastetxeek zainduko dute ikasleen bizitza pribatuan arrazoirik gabe inor ez dela sartzen.
  - b) Datu guztiak behar den diskrezioz edo zuhurtiaz erabiliko dira.
  - c) Eragotziko da ikasleei buruzko informazioa hedatzea komunikabideetan.
  - d) Ikastetxeek ikasleen inguruabar pertsonal eta familiarrei buruz izan dezaketen informazio guztia barruan gordetzeko obligazioa dute. Berme horrek ez du kentzen Hezkuntza Administrazioak eta bere Zerbitzuek dituzten informazio beharrei erantzutea ordenamendu juridikoaren arabera eta ikaslearekiko tratu txarra edo adin txikikoen babeserako legeek ezartzen dituzten egin beharretako beste edozein ez betetzeak bere baitan daukaten inguruabar guztiak eskuduntza duen agintaritzari jakinarazi beharra.
5. Ikasleek eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aintzat hartu eta balioets diezaieten. (9. artikulua)
- a) Ebaluazio irizpideak, helburuak eta edukiak ikasle guztiek ezagutzen dituztela bermatuko da programazio laburraren bidez. Irakasleek ikasturte hasieran ezagutaraziko dizkiete ikasleei.
  - b) Ebaluazio saioen (DBHko ohiko hirurak, Batxilergoko ohiko hirurak, zein ekaineko ohikoak eta ez-ohikoak) datak ikasturte hasieratik jakitea. Ikasketa Buruak ezarriko ditu ikasturteko egutegia Eskola Kontseiluak erabaki bezain laster.
  - c) Gehienera bi azterketa, kontrol edo ebaluazioan eragina izanen duen ariketa berezia eginen dituzte ikasleek eguneko. Saioa amaitu baino lehen azterketa, kontrola edo ariketa berezia bukatzen duten ikasleek gelan jarraituko dute txirrinak jo arte.
  - d) Ebaluazioan zehar, ikaslea ikasgairen batean ondoko taulan adierazten den hutsegite ez justifikatuen kopurura iritsiko balitz, gutxi kalifikazioa jasoko du ikasgai horretan. Hala ere, ikasleak ikasturte amaierako ebaluazioetan parte hartu ahal izanen du, inolako trabarik gabe.

Astean ordu bateko ikasgaia	Justifikatu gabeko 2 hutsegite.
Astean 2 orduko ikasgaia	Justifikatu gabeko 4 hutsegite
Astean 3 orduko ikasgaia	Justifikatu gabeko 6 hutsegite
Astean 4 orduko ikasgaia	Justifikatu gabeko 8 hutsegite



- e) Ebaluazio ondorengo informazioa emanen zaie gurasoei eta ikasleei. Errekuperazioen kasuan, irakasleak ikasleari informazioa emanen dio errekuperatu behar duen materialiaz, prestatzeko erabili behar duen metodologiaz eta saioaren egunaz.
- f) Ikasleen ordezkariak aukera izanen dute ebaluazio saioen hasierako bost minutuetan ikasle taldearen izenean parte hartzeko, gela eta ikasgaiari buruzko iritzia jakinaraziz.
- g) Kalifikazioan eragina duten lanak, ariketak eta probak, zuzendu ondoren, ikasleek eta gurasoek ikusteko aukera izanen dutela bermatuko da eta, eskatuz gero, hauek kopia bat jasotzeko eskubidea dute. (Horretarako egokitutako inprimakia erabiliko da).
- h) Probak berrikusteko aukera bermatuko da eta barne-erreklamazio prozedura egonen da.  
Ikasleek edo haien legezko ordezkariak erreklamazioak egiteko eskubidea dute, betiere ondorengo arrazoietan oinarriturik:
- Dagokion organo didaktikoak programazioan aurreikusitako maila edota ebaluatutako materialaren helburuak eta edukiak ez badatoz bat ikasleari ebaluazio-proban eskatu zaionarekin.
  - Ezarritako ebaluazio-irizpideak okerrak badira.
  - Kalifikazioen aurkako erreklamazio eskubidea gauzatzeko hau izanen da jarraitu beharreko prozedura: ahozko erreklamazioa dagokion irakasleari; honek eraginik izan ez badu, erreklamazioa idatziz egingen zaio zuzendaritzari eta honek dagokion mintegi didaktikoari bideratuko dio; eta, azkenik, azken honek ere ez badu ikaslearen nahia ase, ikastetxeko zuzendariari helaraziko zaio erreklamazioa, ikuskaritzara bideratzeko.
- i) Ikastetxeek ebaluatzeko erabili diren proba, lan eta ariketa guztiak gordetzeko neurriak hartuko dituzte, azken erreklamazio-epea amaitu arte.
- 6.** Eskola jardunaldiaren barruko lan-antolakuntza ikasleriaren adinari eta heldutasunari egokituko zaie bere ahalmenak osoro garatu ahal izateko. Horretarako eskola jardunaren antolakuntza, besteak beste, ikasleriaren proposamenak eta interesak kontuan harturik egingen da. Gai horri dagokionez, ikasleek proposamenak aurkeztu ahal izanen dituzte beren ordezkarien bitartez.
- 7.** Hezkuntzako maila desberdinetara heltzeko aukera beretarako eskubide dute ikasle guztiek. Derrigorrezkoak ez diren mailetan, aprobetxamendu nahikotik edo ikasketarako beren gaitasunetatik sor daitezkeen mugak baino ez dituzte izanen.

**8.** Aukera-berdintasunerako honako hauek izanen dira kontuan (18. artikulua):

- a) Jaiotza, arraza, hizkuntza, sexua, ekonomia-maila, gizarte-maila, edo uste sendo politikoak, moralak zein erlijioak direla bide bereizkeriarik ez egotea, ez eta urritasun fisiko edo psikikoengatik ere, edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialagatik ere.
- b) Aukeren berdintasun benetakoa eta eraginkorra bermatuko duten neurri positiboak ezartzea.
- c) Integraziorako hezkuntza-politika gauzatzea eta hezkuntza-behar bereziendako erantzunak abian jartzea.

**9.** Beren kontzientzia-askatasuna eta ideologia-, erlijio-, etika- eta moral- uste sendoak errespetatu dakizkiela eskatzeko eskubidea dute ikasleek halaber horiekiko intimitatea ere. (12. artikulua)

Honako hauek izanen dira bermatuko dutenak eskubide horretaz baliatzea:

- a) Lege-ordenamenduan agindutako mugen barruan gauzatuko den adierazpen-askatasunaren kaltetan izan gabe, ikasleriaren propaganda- edo ideologia-manipulazioa saihestuko duen irizpide objektiboetan oinarritutako irakaskuntza ematea.
- b) Ikasleen gaitasun eta jarrera kritikoa sustatzea.
- c) Legez agindutako baldintzen barruan, ikasleek edo beren guraso edo tutoreek beren seme-alabentzat, nahi dezaten erlijio-irakaskuntza aukeratzea.
- d) Matrikulazioa egin aurretik, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari buruzko informazioa.

**10.** Beren osotasun fisiko, psikiko eta morala eta beren duintasun pertsonala errespetatuak izateko eskubidea dute ikasle guztiek eta inola ere ezin izanen zaie tratatu laidogarri edo degradatzailek eman, ez eta tratatu txar fisiko edo morala duten neurri zuzentzailek jarri ere. Era berean beren jardun akademikoa segurtasun eta higiene baldintza egokietan garatzeko eskubidea dute ikasle guztiek. (11. artikulua)

**11.** Ikasleek ikastetxeen funtzionamenduan eta bizitzan, euren eskola-jardunean eta kudeaketan parte hartzeko eskubidea dute. Parte hartze hau gauzatzeko ikasleria honako tresnez baliatuko da eta ikastetxeak eskubide horiek bermatuko dizkio (13., 14., 15., 16. eta 17. artikulua):

- a) Ordezkaritza Batzordea, parte-hartze organoetan dagozkion betebeharrak zehaztuta dauzkalarik.
- b) Eskola Kontseilua, zehaztutako proportzioan.
- c) Ikastetxeetan biltzeko eskubidea. (13. artikulua). Ikasleak ikastetxean bildu ahal izanen dira eskolako zein eskolaz kanpoko ekintzak gauzatzeko eta heziketa edo prestakuntza helburua duten bestelako jarduerak burutzeko. Biltzeko eskubidea burutzeko, honako prozedura hau jarraitu behar da:

- Zuzendaritzako kide bati eskaera idatzia helarazi, bertan arrazoia, data, hasierako ordua eta aurreikusitako iraupena adieraziz.
  - Erantzuna baiezkoa bada, zuzendaritzak ekintza burutzeko behar diren tokiaren prestakuntzaz arduratuko da.
- d) **Eskola-uzteak.** DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleek ezin izanen dute eskola-uzterik burutu, ez banakakorik, ez kolektiborik.
- Banakako eskola-uztea gurasoen edo legezko ordezkarien baimena dutenek egin ahal izanen dute soilik. Baimen hori ikasturte hasieran eta ezarritako epean ekarri beharko zaio tutoreari 3 eta 4 DBHn, DBHO eta OLHn (adin nagusikoak kenduta).
- DBHko hirugarren mailatik gorako ikasleek eskoletara bertaratzeari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira jokabide desegokitzat, bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko eta horiei erantzuteko ez da neurri zuzentzailerik ezarriko, betiere biltzeko eskubideaz baliatuta hartu badira eta alde zuzentzailerik ikastetxeko Zuzendaritzari jakinarazi bazaio, ikastetxeak ezarrita dituen arauak jarraituz.
- Bestalde, eskola-uzterako deialdia dagoen egunetan ikastetxearen funtzionamendua honako hau izanen da:
- Deialdia.  
Ikastetxeko ikastaldeetako ordezkariak eta Eskola Batzordeko ordezkariak soilik dute deialdi-proposamena egiteko eskubidea, bai ikastetxekoa bertakoa, nola kanpoko denean arrazoia. Ikasturte hasieran, ordezkariak izendatu gabe direnean, soilik Eskola Batzordeko ordezkariak egin ahal izanen dute deialdia. Edonola ere, deialdia egiterakoan, arrazoiari buruzko informazioa nahikoa izan beharko dute eta Zuzendaria edo Ikasketa Buruari jakinaraziko diote idatziz eskola uztea baino 48 ordu lehenago.
  - Informazioa.  
Deialdia egiten duenak Ordezkarien Batzordea bilduko du lehen eskola-orduan eta bertan arrazoia, proposamenak eta gainerako guztiak azalduko ditu kopia bat idatziz emanez ordezkari bakoitzari.  
Honen ondoren, eskola-ordu honen amaieran, ordezkariak gauza bera egingen du bere ikastaldean.
  - Prozedura.  
Bigarren saioaren hasieran greba egin ala ez erabakitzeke bozketa egingen da. Ordezkariak greba egiteko baimena duten ikasleek erabakien berri hartuko dute. Emaitzak jaso bezain laster ordezkariak bilduko dira ikastetxeko emaitzak jasotzeko eta grebarekin aurrera egitea erabakiz gero, Batzar Orokorra egiteko aukera izanen dute, guztien artean zer-nolako ekintzak burutuko dituzten erabakitzeke eta greba egitera bultzatu dituen arrazoiaren gainean hausnartzeko.  
Honekin guztiarekin batera, Ikasketa Burutzak emandako inprimaki ofiziala beterik aurkeztuko diote berari edo Zuzendariari. Inprimaki honek ondorengo datuak jasoko ditu: eskola-uztearen arrazoia, eguna, iraupena, eskola-uzteari baiezkoa eman dion ikasle-kopurua taldeka eta egitasmoa.

- **Garantiak.**

Azterketa edo ebaluaziorako baliagarri den froga bat greba deialdia baino lehen jarria bada, aurreikusitako egunean egingen da, ez bada ikasleria osoa akordio batera iristen irakaslearekin. Alderantziz, ezin izanen da azterketa edo antzeko froga ezarri greba deialdia izanen dela jakin ondoren, atzera berriz gela osoa eta irakaslea ados ez badira behintzat. Bozketak gelan egiten diren bitartean ikasle batek eska dezake irakaslea bertan ez egotea.

Greba egiten ez duten ikasleei, bat bakarra izanik ere bai, bermatuko zaie saioak jasotzeko eskubidea.

Batzarra eta eskola-uztea burutzen diren bitartean ikastetxeko giroa ahalik eta normalena izanen da, gainerako ikasleek eskolak jaso ditzaten normaltasun osoz.

- e) Ikasleek elkartzeko duten eskubidea (15. artikulua). Ikastetxeak lokal egokiak utzi beharko dizkie ikasleei ikasle-elkarteen berezko jardueretarako, betiere azpiegiturak ezarritako mugak kontuan izanik eta jarduera akademikoa eten gabe. Utzitako lokalak behar bezala erabiltzen direla bermatu beharko du Zuzendaritzak.
- f) Informazioa erabiltzeko eskubidea (17. artikulua). Ikasleek beren garapenerako informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.

**12.** Adierazpen-askatasunerako eskubidea (14. artikulua). Ikasleek beren iritziak, bakarka zein taldean, adierazi ahal izateko eskubidea dute.

Ikasleak, adierazi-berri diren eskubideak betetzeko eskola-eremutik ateratzekoak badira (atsedenaldiak, eskolaz kanpoko ekintzak), gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute, baldin eta adinez txiki badira.

**13.** Beren gaitasun, ezagutza eta ahalmenen arabera, beren erabaki-askatasuna ziurtatuko duen eskola-, bokazio- eta lanbide-orientabidea hartzeko eskubidea dute ikasleek. Horretarako, Institutua bere inguruko enpresa publiko eta pribatuekin harremanetan jarri ahal izanen da, ikasleei lan-mundua ezagutzea eta bertara heldu ahal izateko hartu beharko duten lanbide-prestakuntza errazteko, enpresa jakin batean, publikoa zein pribatuan, egindako lan-praktikak, ikasleek hartzen dituzten ikasketekin bat datozela bermatuz. Era berean hemen aurreikusten diren ondorioetarako, dagozkion bisita eta heziketa-jardunak programatuko ditu ikastetxeak. (10. artikulua)

**b) II. ATALA: IKASLEEN BETEBEHAR OROKORRAK**

(21., 22., 23., 24., 25., 26. eta 27. artikulua)

- 1. Ikastea eta ahalegina egitea ikasleen oinarrizko betebeharra da eta beren gaitasun pertsonalen eta emandako ezagupenen aprobetxamendua eskatzen du ikasleek euren garapen pertsonal onena eta prestakuntza intelektual eta profesional egokia lor dezaten. Egiteko orokor hori, ondorengo betebeharrak hauetan zehazten da:

- a) Klasera joatea, eskola-egutegian erabakitako ekintzetan parte hartzea eta jarritako ordutegiak errespetatzea.
  - b) Irakasleek irakasteko zereginaren jardunean agindutako lanak egitea.
  - c) Ikaskideen ikasteko eskubide jarduna errespetatzea.
2. Eskola-elkarteko gainerako kideek eskubide eta askatasunez baliatu ahal izatea errespetatu beharra dute ikasleek. Betebehar hori ondorengo eginkizunetan zehazten da:
- a) Eskola-elkarteko kide guztien kontzientzia-libertatea eta uste sendoak ideologikoak, erlijiosoak, moralak eta etikoak errespetatzea, halaber duintasuna, integritatea eta intimitatea.
  - b) Jaiotza, arraza, sexua, ideologia, hizkuntza, kultura, erlijioa edo iritzia edo beste edozein zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela bide, eskola-elkarteko kiderik ez bereiztea.
  - c) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua indarrean dagoen legediaren arabera errespetatzea.
  - d) Klase barruko jokaera arauak. Klase barruko gutxieneko jokaera egokiaren ondoko arauak ezartzen dira:
    - Ondo eserita egotea.
    - Irakaslea edota ikaskide bat hitz egiten ari denean errespetatzea.
    - Klasean ez jatea, ez edatea ere.
    - Bakoitzari dagokion tokian eserita egotea, gainontzeko ikaskideena eta irakaslearena errespetatuz.
    - Klasean lan egiteko beharrezkoa den materiala ekartzea.
  - e) Ikastetxeko ondasun higigarriak eta instalazioak errespetatzea eta zuzen erabiltzea.
  - f) Eskola-elkarteko gainerako kideekin batera parte hartzea eta era eraginkorrean laguntzea ikastetxeko irakaskuntzaren, eskola-orientazioaren eta elkarbizitzaren garapenik egokiena lortzeko asmotan.
  - g) Ikasle guztiek klasera joateko duten eskubidea errespetatzea.
  - h) Ikasleek, eskola-eremuan, ezin izango dute grabazio-baliabiderik erabili, salbu eta ikastetxeak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira. Kasu horietan ere ezin izango dute hezkuntza-komunitateko inor grabatu hark nahi ez badu eta hartarako baimena esanbidez ematen ez badu.
3. DBHko 3. mailatik aurrera, ikasle adingabeei irteera baimentzeko atsedendietan gurasoen idatzi bidezko eskabidea beharko da.
4. Ikasleek ikastetxeak ezarritako hezkuntza-neurri zuzentzaileak bete behar dituzte.

5. Ikasleek ez diote kanpoko inori ikastetxera sartzeko aukera erraztuko, eta ez dira haiekin bertan ibiliko. (27.2 artikulua)

### **c) ESKOLATZE ESKUBIDEA BERMATZEKO NEURRIAK**

Ondoren zehazten den prozedura ezartzeko hutsegite ez justifikatuak. Prozedura abian jarriko da ikasle batek justifikaziorik gabeko eskola hutsegite kopurua hilabeteko %20 baino handiagoa bada.

1. Tutorea lehenbailehen jarriko da harremanetan gurasoekin telefonoz edo gutunaren bidez eta adieraziko die ikaslea institutura joan ezean zuzendariaren jakinarean gainean jarriko duela egoera, honek beharrezkoak diren neurriak har ditzan.
2. Jarraian, beste hutsen bat eginen balu ikasleak, ikuskaritzari jakinaraziko zaio, behar diren neurriak hartzeko.
3. Zuzendaritzak Batzorde Pedagogikoari ikasleen eskola hutsei buruzko informazioa emango dio, zein ikasleri eragiten dion eta zein egoeratan dagoen adieraziz.

## **1.2. II. KAPITULUA: DIZIPLINA**

### **a) I. ATALA: XEDAPEN OROKORRA**

(28. eta 29. artikulua)

Desegokiak, aurkakoak eta bizikidetzarendako larriki kaltegarriak diren jokabideak baino ezin izanen dira zuzendu. Gure AJAn, falta arin, larri eta oso larri moduan adieraziko ditugu.

Ikasleek ezin izanen dute neurri zuzentzailerik jaso AJA honetan hutsegite bezala jasota ez dauden jokabide eta jarrerengatik.

Inoiz ezin izanen zaio ikasleari ezarri bere segurtasuna edota duintasunaren kontra eragin dezakeen neurri zuzentzailerik.

### **b) II. ATALA: JOKABIDE MOTA EZBERDINAK**

#### **(1) JOKABIDE DESEGOKIAK (FALTA ARINAK) (A MOTAKOAK)**

(30. artikulua)

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegite errepikatuak, kontuan izanik puntualtasun-hutsegitezat hartuko dela ikaslea eskola jarduera etenez sartzea gelan, hots, irakasleak eta ikasleek eskolari hasiera eman eta gero. Horrela izanik, 3 puntualtasun-hutsegite falta arin 1 bezala kontsideratuko da.

- b) Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak. 2 bertaratze-hutsegite falta arin 1 bezala kontsideratuko da.
- c) Instalazioak, materiala edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzak hondatzea edo narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean. Ondorengoak, falta arin hauen adibide dira:
- Ezabagailua, klarionak, paperak... jolaserako erabiltzea.
  - Mahaiak, aulkiak eta ikastetxeko dependentziak era ez iraunkorren zikintzea.
  - Liburutegian: liburuak lekuz aldatzea; liburu itzulketak berandu behin baino gehiagotan egitea; liburuak kaltetzea; liburutegian jatea edo edatea...
  - Laborategian: ura, gasa eta edukiontziak era desegokian erabiltzea; materialak eta edukiontziak nahaspilatzea.
  - Teknologia gelan: lanabesak era desegokian erabiltzea; tresneria eta materialak nahaspilatzea.
  - IKT geletan: beste programetan sartzea; norberaren tresneria erabiltzea irakaslearen baimenik gabe.
  - Pasabideetan: pasabidea jolaslekutzat hartzea; lurrean eseri edo etzatea; pasabidea oztopatu edo galaraztea; garbitasuna mantentzen ez laguntzea; beste geletako jarduera arrunta etetea.
  - Patioan: garbiketan ez laguntzea; hesien gainetik salto egitea; ateratzeko baimena ez duten ikasleak ohiko tokietan (patioa, kiroldegia, aisia-gela eta sarrera, liburutegia) ez egotea.
  - Tailerretan: makineria eta lanabesak era desegokian erabiltzea; beste programetan sartzea; irakaslearen baimenik gabe norberaren tresneria erabiltzea; segurtasun- eta higiene-arauak ez errespetatzea, instalazioei eta pertsonen kalterik eragin gabe.
  - Arte-adierazpen gelan: materialak era desegokian erabiltzea; gelaren garbiketan ez laguntzea (mahaiak, hormak, lurra, harraskak ...).
  - Komunetan: ura, atea, itxiturak eta gainerako materialak eta instalazioak era desegokian erabiltzea; konketa eta pixatokiak tratatzea.
  - Aisialdiko gelan: barra jarleku edo besaulkitzat hartzea; gelaren garbiketan ez laguntzea.
  - Jantokian: tresnak ez biltzea; jantokiko garbiketan ez laguntzea;
  - Soinketa-gelan: materialak era desegokian erabiltzea.
- d) Irakasleek, agintari akademikoek eta ikastetxeko gainerako langileek bere jardunean agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak. Eskola-elkarteko kideen aurkako indiziplina ekintzak, irain edo laido ez larriak.



- f) Eskola Kontseiluak debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.
- g) Ikastetxeko ekipamendua, analogikoa eta digitala, baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
- i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea. Gauza bera, baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzeagatik. Honen ondorioa ebaluazioa suspenditzea izango da.  
Ikasleek ezin izango dute sartu azterketa egingo den ikasgelan komunikatzeko edo datuak gordetzeko gailu elektronikorik, besteak beste, telefono mugikorrek, ordenagailu pertsonalak edo ordulari adimenduak. Ikasleak, azterketa hasi ondoren, horrelako gailu elektronikorik erabili edo izanez gero, piztuta edo itzalita, kopiatzen ari dela ulertuko da.  
Hori saihesteko, azterketa hasieran, irakasleak gailu elektronikoak irakaslearen mahai gainean itzalita uztea eskatu ahal izango die.
- j) Baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea.
- k) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.
- l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze:
  - Gelan zutitu, oihu egin, abestu, txistua egin, soinuak nahita egin, jan, gauzak jaurti...
  - Pasabideetan geletako kristaletan agertu, zarata gogaikarriak sortu, gelan sartu baimenik gabe, gauzak bota...
  - Ikastetxeko eremu osoan telefono mugikorra erabili (piztuta izan, hitz egin, jolastu, musika entzun...).
  - Ikasleek ezin dute ikastetxeko eremu osoan mugikorra, smartwatch-a edota antzeko gailuak eduki, ez baldin bada irakaslearen baimenarekin helburu akademikorako.

## **(2) IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN AURKAKO JARRERAK. (FALTA LARRIAK) (B MOTAKOAK)**

(31. artikulua)

- a) Aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera disziplinarik eza, irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.
- b) Hezkuntza-komunitateko kideen aurkako mehatxuak edo irainak (larriak ez badira).



- c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea eta horiek hedatzea, saltzea edo erostea.
- d) Noten buletinetan aldaketak egitea.
- e) Ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik.
- f) Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.
- g) Besteen ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako eskubidea ez errespetatzea.
- h) Edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea (indarkeria erabili gabe).
- i) Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo jangelan.
- j) Lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.
- k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, kalte eginez gero hezkuntza-komunitateko kideei.
- l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabidea, arrazoia edozein izanik ere.
- m) Jokabide desegokiren bat **hiru aldiz** egitea hiruhileko akademiko berean. Hauen metaketaren kontrola tutoreak egiten du eta Ikasketa Buruari jakinaraziko dio horrelakorik gertatzen denean.
- n) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide:
  - n.1) Ikasle edo irakasleren baten aurkako eraso informatikoa egitea, hau da, norbaiten kontuan sartzea, irakaslearen saioan ikasleren bat sartzea.

### **(3) IKASTETXEKO BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK. (FALTA OSO LARRIAK) (C MOTAKOAK)**

(32. artikulua)

- a) Eskola Batzordeko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik gabeko egintza edo obediencia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne.
- b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere.

- c) Jazarpen sexista.
- d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.
- e) Oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera.
- f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez.
- g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo horietan parte hartzea, lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
- h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei.
- i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan, egoera arriskutsuak sortzen badituzte.
- j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteen eskubideak (ohorea, intimitatea, irudi propioa) ez errespetatzea. Telefono mugikorra, esate baterako, erabili argazkiak ateratzeko edo grabaketak egiteko baimenik gabe.
- k) Beste edonoren izena erabilia aritzea.
- l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, eta baita ezkutatzea edo baimenik gabe ateratzea ere.
- m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea edozein egintza, nahita eginez gero.
- n) Bizikidetzaren aurkako jokabideak **hiru aldiz** egin izana ikasturte berean, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie. Hauen metaketaren kontrola tutoreak eginen du eta Ikasketa Buruari jakinaraziko dio horrelakorik gertatzen denean.
- ñ) Norberaren betebeharrak ez betetzeak beste edonoren eskubideen aurka modu larrian jotzen badu zuzen zuzenean.

#### **(4) IKASTETXETIK KANPO EGINDAKO EGINTZENGATIKO ERANTZUKIZUNA**

(33. artikulua)

Aurreko jokabide mota ezberdinak, ikastetxeko eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere **zuzenduko dira**:

- a) Ikastetxeak antolatutako jarduera osagarrien edo eskolaz kanpoko jardunean suertatu badira.
- b) Jangela- edo garraio-zerbitzuak erabiltzen diren bitartean gertatu badira.
- c) Eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.

#### **c) III. ATALA. DIZIPLINA ARAU HAUSTEEN ONDORIOAK**

##### **(1) JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA. (A MOTAKOAK)**

(34. artikulua)

1) Zuzenketaren arduraduna: **irakaslea**.

2) Zuzenketa neurriak:

- a) Jokabidea eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- b) Jokabide desegokia izan dela onartzea (kaltetuak izan badira, haien aurrean bereziki)
- c) Eredu egokiak ikasteko jarduerak egitea (faltaren araberakoak: barkamena eskatu, arazoa konpondu...).
- d) Jokabide desegokiarekin zerikusia duen zereginen bat egitea (ariketak behin eta berriz ez egiteagatik atsedenaldian gelan gelditu haiek egiten, ...).
- e) Irakasle batek ikasle bati mugikorra, smartwacha edo antzeko gailua ikusten badio, konfiskatu egingo dio. Horretarako ondoko urratsak jarraituko ditu:
  1. Irakasleari gailua itzaltzeko eskatuko dio.
  2. Irakaslearekin idazkaritza/zuzendaritzara lagundu.
  3. Idazkaritzan, testiguen aurrean, pegatina bat eman, bere izena jarri dezala, gailuan itsatsi eta idazkaritza (zuzendaritzan) egokitutako kutxan sartu dezala.
  4. Gailua eguneko azkeneko klasearen ostean jaso ahalko du. Irakasleak zuzendaritzan dagoen erregistroan sinatu egingo du gailua jaso egin duela.
  5. Irakasleak familiari jakinaraziko dio gertatutakoa, Inikan dagoen arau hausteen ereduaren bidez.”

## (2) IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ZUZENKETA (B MOTAKOAK)

(35. artikulua)

### 1) Zuzenketaren arduraduna: **zuzendaria**.

Lehenik irakaslea bera saiatu behar da jokabide okerra konpontzen erreparazio sistema abian jarritz. Baina, ondorio positiborik ez balu lortuko Zuzendaria jakinaren gainean jarriko du, eta honek txostena bideratuko duen instruktorea izendatuko du eta Bizikidetza taldea (Zuzendaria edo Ikasketa Burua, Orientatzailea, Bizikidetza arduraduna, Tutorea eta hutsegitea jakinarazi duen irakaslea) bilduko da.

### 2) Zuzenketa neurriak:

- a) Egintza eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.
- b) Ohartarazpen idatzia.
- c) Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla.
- d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.
- e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea (hiru hilabetez gehienez). Ondorengoan modukoak izan daitezke aipatu lan edo zereginak: liburutegian laguntzea, ikastetxeak dituen proiektu desberdinetako eginbeharretan laguntzea, txukunketa lanak egitea gelan edo ikastetxeko beste zenbait eremutan, administrariari, atezainari edo irakasleei laguntzea ...
- f) Ikastetxera joateko eskubidea etetea (ikasgai bateko edo gehiagoko eskoletara). Adingabeen kasuan, gurasoekin edo legezko arduradunarekin izan arte. (Gehienez hiru egun).
- g) Eskolaz kanpoko jardueretan edota eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea (ekintzen hiruhileko berean gehienez; bukaeran bada, hurrengoan).
- h) Jangela edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, aurrekoaren baldintzetan.

Azken bi neurriak soilik hartuko dira, zerrenda honetako a) eta f) neurriek ikaslearen jokabideak zuzentzea lortu ez badute.

- i) Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidea hiru aldiz mugikorra edo antzeko gailu elektronikoak agerian edukitzeagatik gertatzen bada, irakasleak 1.2) atalean azaldutako prozedura jarraituko du ikaslearen gailua konfiskatzeko. Kasu honetan familia -gailuaren jabe legalak direnak- etorri beharko du gailuaren bila edo ikasleak jaso ahalko du konfiskatu eta hiru egunetara. Adinez nagusiko ikasleen kasuan gailua hiru egunetara jaso ahalko du.

Zuzendaritzak familiari jakinaraziko dio arau haustea eta hartutako neurria.

### **(3) BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENKETA (C MOTAKOAK)**

(36. artikulua)

- 1) Zuzenketaren arduraduna: **zuzendaria**.

Lehenbailehen Zuzendaria jakinaren gainean jarri, honek Bizikidetzaren Taldea lehenbailehen bildu eta behin-betiko erabakia hartzeko.

- 2) Zuzenketa neurriak:

- a) Lan hezigarriak, ikastetxeko jarduerak hobetzekoak eta eragindako kalte materialak konpontzekoak eskola-ordutegitik kanpo egitea (**gehienez sei hilabetez**).
- b) Arlo bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea **hiru egunetik hogeira bitartean**.
- c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru egunetik hogeira bitartean. (Ez du etengabeko ebaluazio eskubidea galduko).
- d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo jangela- edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. (Ikasturtea amaitu arte izan daiteke)

Azken hiru neurriak hartzeko, a)k eraginik ez duela izan ziurtatuko da. Irakasleek, gutxienik betiere, amaierako probetara aurkeztu beharko dute, ebaluazioa egin ahal izateko.

- e) Hezkuntza komunitatearen aurkako delitu bat egon den susmoa dagoen kasuetan jarraitu beharreko protokoloa (gailu elektronikoen kasuan):
1. Delitua egin duten ikasle susmagarriak zuzendaritzara eraman eta mugikorra zuzendaritzaren kustodian utzi (mugikorren konfiskatze protokoloa jarraitu).
  2. Irakasleak 14 urte baino gehiago baditu, mugikorra begiratzeko baimena eskatu, idatziz.
  3. Irakasleak 14 urte baino gutxiago baditu, ikasleen gurasoei deitu eta lehenbailehen zentrori gerturatzeko eskatu.

4. Gurasoei (tutore legal) egoera azaldu eta mugikorrek begiratzeko baimena eskatu idatziz.
5. Mugikorra autoritate publiko batek begiratu (klaustroko pertsona batek, beti ere testiguekin).
6. Guraso edo tutore legalek ez badute baimenik ematen, fiskaliara deitu eta fiskaliak erantzun bitartean mugikorra zuzendaritzaren kustodiapean eduki.

#### **(4) IKASTETXEZ ALDATZEKO PROPOSAMENA**

(37. artikulua)

- a) Bizikidetzari kalte larria bigarren aldiz jazo bada eta lehenetik bigarrenera ehun eta hogeik eskola egun igaro ez badira.
- b) Kalte larriak berdinen arteko tratu txarrak edo sexuagatiko jazarpena berarekin badakar.
- c) Irakasle bati eraso egitea.
- d) Beste kide batzuei eraso larriak egitea.

Ikaslea adinez nagusi bada edo DBHOkoa, urrutiko ikastetxe batera aldatzea proposatu ahal izango da eta proposamena Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritari helaraziko zaio.

#### **(5) IZAN DAITEZKEEN KALTEENGATIKO ERANTZUKIZUNA**

(40. artikulua)

Ikasleek egin beharreko konponketen kostu ekonomikoa beren gain hartuko dute, eta haien gurasoak izanen dira erantzule subsidiarioak.

#### **(6) NEURRI ZUZENTZAILEAK PROPORZIONALTASUNEZ APLIKATZEN DIRELA BERMATUKO DA**

(41. artikulua)

ONDORENGO ZIRKUNSTANTZIEK ERANTZUKIZUNA GUTXIAGOTUKO DUTE:

- a) Jokabide desegokia berehala onartzea.
- b) Aurretik neurri zuzentzailerik jaso ez izana.
- c) Kalteak konpontzea edo kalteak konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.

- d) Jendaurrean barkamena eskatzea.
- e) Halako kalte larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.
- f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

#### ONDORENGO ZIRKUNSTANTZIEK ERANTZUKIZUNA HANDITUKO DUTE:

- a) Adinez txiki, minusbaliatu, ahalmen fisiko txikiagoko eta ikastetxera etorri berrien aurka egindako kalteak; edo, besterik gabe, nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.
- b) Kaltea nahita egina izatea.
- c) Kaltea apropos egitea edo aldez aurretik prestatua izatea. **(premeditazioa)**
- d) Kalteak eragitera bultzatu edo akuilatu izana. **(inazitazioa)**
- e) Ordezkaritza-kargua gehiegikeriaz baliatzea. **(ikasle ordezkariak)**

### 1.3. III KAPITULUA. JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK

(42-48 artikulua)

- a) Zuzendariek ahalegina egingen dute bizikidetzaz arazoak konpontzeko hemen araututako prozedurak erabili gabe eta ikasleek, beren borondatez, onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingen da (ikus 44., 45., 46., 47. eta 48. artikulua). Ezin izanen da horrela jokatu adin nagusikoen kasuan, ikastetxea aldatzea eragin dezaketen jokabideen kasuan eta bi aldiz egin bada ahalegina bide horietatik konpontzeko.
- b) Zuzendariek ahalegina egingen dute bi aldeak adiskidetzeko, betiere kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduz.
- c) Zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie Eskola Kontseiluari eta klaustroari.
- d) Jokabide horien dokumentazioa soilik ikasleak aurretik hutsegiteren bat egin duen ala ez jakiteko jasoko da.

### 1.4. IV. KAPITULUA. NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK

#### a) I. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

(49-56 artikulua)

- a) Ikastetxeko irakasle guztiek ikasleen jokabide desegokiak berehala zuzentzeko eskumena dute.

- b) Irakasle guztiek eskumena dute ikasleari errieta egiteko, kalteak jasotzea ekiditeko berehala hartu behar diren neurriak bazter utzi gabe.
- c) Zuzendaria da kontrakoak diren edota bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko eskumena duen organoa. Dena dela, honek txostena abian jartzeko aukera izanen du instruktore bat izendatuz. Instruktoorea ez da inoiz eskola zuzenean ikasleari ematen dioten artekoa izanen.
- d) Eskola Kontseilua, eta bereziki Elkarbizitza Batzordea, da zuzendariak hartu dituen erabakiak berrikusteko eskumena duen organoa. Hala ere, jokabidea oso larria denean, Eskola Kontseiluarena izanen da soilik eskumen hori.
- e) Ezin izanen zaio inolako prozedurari ekin kalte larriak eragin dituen jokabidea gertatu zenetik 120 egun baino gehiago igaro badira, bizikidetzaren kontrako jokabidetik 60 egun baino gehiago igaro badira, edo jokabide desegokia eragin duenetik 20 egun igaro badira.
- f) Neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izanen dira erreklamazioak egiteko epea amaitzen denetik edo jokabide desegokia zuzentzea erabakitzen denetik. Eta ezin izanen dira neurri zuzentzaileak ezarri kalte larrien kasuan ebazpena eman zenetik 120 egun baino gehiago igaro badira, bizikidetzaren kontrako jokabidetik 60 egun baino gehiago igaro badira, edo jokabide desegokia eragin duenetik 20 egun igaro badira.
- g) Erreklamazioak egiteko epea hiru egunekoa izanen da eta ikasleek edo haien gurasoek aurkeztu ahal izanen dute Eskola Kontseiluan. Erakunde honen erabakiaren aurka, Hezkuntza Lurralde ordezkariari hiru egun balioduneko epean aurkeztu ahal izanen zaio. Eta, azkenik, honen aurka ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuko Hezkuntza sailburuordeari errekurtsioa jar diezaiokeite jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.
- h) Prozedurak ezeztatu. Bizikidetzaren aurkako jokabideei buruzko prozedurak, ikasturte akademikoa amaitzean **suntsitu** behar dira. Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituztenei buruzkoak, aldiz, hurrengo ikasturtea amaitzean.

**b) II. ATALA. JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA**

(57. artikulua)

- a) Berehala eta ahoz zuzenduko dira.
- b) Idatziz jaso ez badira ezin izanen da aplikatu jokabide desegokiak metaketa (hiru).
- c) Kasu guztietan, ikasturtea amaitzean suntsituko dira.



**c) III. ATALA. GAINERA KOAK ZUZENTZEKO OHIKO PROZEDURA**

(58-67 artikulua) (guztia zuzendariak)

- a) Ohiko prozedura erabiliko da gertakariak nahiz egilea bistakoak direnean (58. artikulua).
- b) Hasierako egintzaren gutxienerako edukia: azalpena, kalteak jokabideetako batean kokatzea, aplikatu daitezkeen neurriak aurreikusi, neurria aplikatuko duen organoa zein den zehaztu eta, azkenik, aurreikusi diren baketzegatiko edo konpontzegatiko eteteak jaso (59. artikulua).
- c) Hasierako egintza, ikaslea eta haren gurasoei jakinaraziko zaie. Jarraian zitazioa bidaliko da entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuz. Neurri zuzentzaileak eta behin-behinekoak ere jakinaraziko zaizkie (60. artikulua).
- d) Zuzendariak behin-behineko zenbait neurri (eskolara joateko eskubidea etetea, taldez aldatzea) ezarri ahal izanen ditu ikastetxean jarduerak normaltasunez gauzatzeko direla bermatzeko. Behin-behineko neurriak ezin izanen dira izan neurri zuzentzaileak baino latzagoak eta kontuan izanen dira horiek betetzeko garaian (61. artikulua).
- e) Neurri zuzentzaileak erabakitzea (63. artikulua). Idazki batean bilduko du zuzendariak, arrazoiak azalduta, eta baita jokabideak zein diren jakinarazi zaien modua ere.
- f) Erabakiaren berri eman Lurralde ordezkariari (64. artikulua).
- g) Bestelako xehetasunak prozedurei buruz (65., 66. eta 67. artikulua)

**d) IV. ATALA. OHIZ KANPOKO PROZEDURA**

(68-80 artikulua)

- a) Ekintzak kaltetuak salatutakoaren bidez soilik edota ekintza nahiz egilea bistakoak ez direnean abiaraziko da.
- b) 37. artikuluan (ikastetxez aldatzeko proposamena) aipatzen diren kasuetan.
- c) Zuzendariak hala irizten dionean.

Prozedurari ekiteko epeak, hasierako ekintzen gutxienerako edukia, izapidegilea (instruktoea) izendatzea eta hau errefusatzeko aukera, izapidegilearen jardunak, Fiskaltzari jakinarazpena (falta penaltzat har badaiteke), entzunaldiak, ebatzen proposamena, ebatzpena eta jakinarazpena aipatutako artikuluetan arautzen da.

## 1.5. XEDAPEN GEHIGARRIAK

Besteak beste, ondorengoak ageri dira: irakasleendako laguntza eta defentsa juridikoa, AJAren aldaketa, guraso-ahalaren funtzioak, ...

## 1.6. XEDAPEN IRAGANKORRAK

Honetan, aldiz, bertaratze-hutsegite kolektiboen erregimen iragankorra eta alde zuzenetik abiarazitako prozedurak hartu dira kontuan.

# 2. IRAKASLERIAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

### 1.- Eskubideak :

- a) Irakasle jardura profesionalarekiko begirunea.
- b) Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren barruan klaseak antolatzeko.
- c) Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren barruan klaseak antolatzeko.
- d) Ikastetxeko kudeaketa organoetan parte hartzeko.
- e) Ikastetxeko ekintza guztien inguruan informazioa jasotzeko.
- f) Bere hitzarmen berezian eta langileen legeri orokorrean agertzen diren gauza guztiak bermatzeko.

### 2.- Betebeharrak :

- a) Ikas-ordutegia (klaseak hasi eta amaitu egiten dira txirrinaren soinuarekin) zein ikas-ordutegitik kanpoko ekintzak (klaustroak, ebaluaketak, mintegi-bilerak, eta abar) bete behar ditu.
- b) Ez-etortze agiriak, behar den garaian, aurkeztu behar dizkio Zuzendariari edo Ikasketa Buruari hauek noiz eskatu zain egon gabe.
- c) Bere asteko ordutegian dagozkion zaintzak era egokian burutuko ditu, bertan oinarritako ekintzak honako hauek direlarik:
  - Irakaslearen ez-etortzeagatik edo beste arrazoi batengatik bakarrik geratzen diren ikasleak zaintzea ikastetxean eta dagokien ikas gelan. Irakasle batek bere ez-etortzea aurreikustekotan, lana jarriko die ikasleei ikasgelan egin dezaten eta Ikasketa Buruari emango dio horren berri.
  - Pasabideetan, bai sartzeko eta bai klasetik ateratzeko orduan, egon behar den ordenaz eta, oro har, klasetik kanpo ikasleek eduki behar duten jarreraz arduratzea; kontutan hartuta, azken finean, hori irakasle guztien ardura dela.
  - Dagokion unean gerta daitezkeen ezusteko guztiak berehala konpondu, ikastetxean laguntza medikoa behar duen edonorentzat horren kudeaketa egitea barne.
  - Dagokion orduan, irakasleriaren etortze eta puntualtasunaren berri eman, bai irakaskuntzako ekintzak direnean eta bai irakaskuntza kanpoko ekintzak direnean ere, ez-etortzeen parte honetako erabiliz.

### **3. GURASOEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK**

#### **1.- Eskubideak :**

- a) Bere seme-alaben ikasketekin erlazionaturiko gauza guztiei buruzko informazioa jasotzea.

#### **2.- Betebeharrak :**

- a) Beren seme-alaben ikasketekin erlazionaturiko gauza guztien jarraipena egitea.

### **4. EZ IRAKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK**

#### **1.- Eskubideak :**

- a) Bere lanarekiko begirunea.
- b) Bere hitzarmen berezian eta langileen legeria orokorrean agertzen diren gauza guztiak bermatzeko

#### **2.- Betebeharrak :**

- a) Ikastetxeko kudeaketa organoek eskatzen dizkioten lanak betetzea.

## V. ARAU AKADEMIKOAK

Ikastetxea publikoa izanik, Aguraingo Aniturri Institutuak Administrazioetik datozen eta egunean indarrean dauden lege eta arauak bete beharko ditu, hau horrela izanik hurrengo arlo guztietan:

- Lanpostuen deialdia.
- Ikasleen onarpena.
- Taldeen osaketa.
- Kurtsoa gainditzea.
- Ikasketen aukeren aldaketak.
- Ikasgaien baliozkotzea.
- Eskola ordutegiaren eraketa.
- Ikasgaien programazioak.
- Azterketen deialdiak, eta abar ...

## VI. AJA ALDATZEKO PROZEDURA

Eskola Kontseilua, gehiengo absolutua izanik, AJA n zer edo zer gehitu, kendu edo aldatzeko ahalmena duen Organo bakarra da, baldin eta indarrean dagoen legediari jarraitzen badio.

Hezkuntza-elkarte kide guztiek Araudi honetan ezartzen diren eskubideak errespetatu behar dituzte.

## VII. ERANSKINAK

### 1. 201/2008 DEKRETUA

### 2. 201/2008 DEKRETUAREN AURKAKO JOKABIDEAK ZUZENTZEKO PROZEDUREN EUSKARRI DOKUMENTALA

- I. ERANSKINA: Parte arinak (57.2. art)  
IDATZIZKO OHARTARAZPENA, JOKABIDE DESEGOKIAGATIK
- II. ERANSKINA: Parte larriak eta oso larriak (Prozedura arrunta 59-60 artikulua; ohiz kanpoko prozedura 70-72 artikulua)  
BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEAGATIK EDO BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DION JOKABIDEAGATIK PROZEDURA ZUZENTZAILEA HASI IZANA JAKINARAZTEA
- III. ERANSKINA: ENTZUNALDI IZAPIDEAREN AKTA (Proz. arru. 62. art; ohiz kanp. 77. art)
- IV. ERANSKINA: Aplikatzeko NEURRI ZUZENTZAILEAREN JAKINARAZPENA (Proz. arr. 63.art; ohiz kanp 77. art)
- V. ERANSKINA: ESKOLA BATZORDEAREN EBAZPENA, APLIKATUTAKO NEURRI ZUZENTZAILEA BERRIKUSTEKO ESKABIDEARI BURUZKOA (66.art)
- VI. ERANSKINA: INSTRUKTOREA EZESTEARI EMANDAKO ERANTZUNA (instruktoreak berak) (73.2 art)
- VII. ERANSKINA: INSTRUKTOREA EZESTEARI EMANDAKO ERANTZUNA (zuzendariak) (73.3 art)
- VIII. ERANSKINA: PROZEDURA ZUZENTZAILEA BERTAN BEHERA UZTEA, JOKABIDEAK ZUZENTZEKO ORDEZKO BIDEAK APLIKATU DIRELAKO (III. Kapitula)
- IX. ERANSKINA: IKASTETXEAREN ZUZENDARITZARI USTEZKO LEGEZ KONTRAKO EKINTZA JAKINARAZTEA, FISKALTZARA HELARAZTEKO (75. art)